



ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko apirilaren 21a | XXXVI. urtea | 660. zenbakia



→ 45

Neskur Etxenike eta Patti Sanz Gipuzkoako txapeldun atletismoan

Herrietako bestak

Irurita eta Urdazubi → 23-31

BERA → 11

Bigarren eskuko merkatua apirilaren 24an

SUNBILLA → 17

Eskola berria egitea eskatu du Parlamentuak

LEITZA → 35

XXXVIII. Herri Krosa apirilaren 23an

BAZTAN → 37

Aroztegiako egitasmoaren kontra manifestazioa

Nafarroaren Eguna | Apirilaren 24an Baigorriin

ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL



‘Nafarroa bat eta bakarra’ dela aldarrikatzeko eguna

Apirileko azken igandean Nafarroaren Eguna ospatuko dute Baigorriin eta egun osoko egitarau zabala prestatu du Basaizea Kultur Batasunak. «Izpegiren bi magaletan dantzatzen eta kantatzen duen herria garela aldarrikatzeko. Euskarak batzen gaituela erakusteko. Sustraiak sakon lurrean, eta ametsak hegan haizean, etorkizuna elgarrekin eraiki nahi dugula erraiteko».

→ 18



ELKARRIZKETA → 3

Taldea sortu eta urtebetera *Bidean topatuko gara* diskoa argitaratu du Txamukos mariatxi taldeak. Euskaraz inoiz kantatu gabeko bertso bat ere sartu dute lanean.



ERREPORTAJEA → 4-5

Tokiko ekonomiari bultzada emateko bertze urrats bat

Baztanen lehengaia egin, eraldatu eta merkaturatzen duten hamahiru ekoizle eta transformatzailek Baztango Zaporeak ekimena sortu dute Udalarekin elkarlanean.

ZOZKETAK → 52



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra.

Koskontako bidea, 11 behea - LESAKA Tel. 948 637 135
ePosta. info@acornlanguages.com

www.acornlanguages.com

Summer Camp 2016



Uztaileko ikastaro trinkoak
Hango irakasle batekin

	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala
9.30 11.30	English class	English class	English class	English class	English class
11.30 11.45	Break (ekarri hamaitakoa)				
11.45 13.30	Aurkezpen Jokuak 	Antzezen- espreio jolasak Homa-irudi kollektiboa 	Jolasak 	Musika 	Musika
	eskulanak Land art 	igerilekua Hitz eta iruinen tailerra 	eskulanak argazkiekin 	Jolasak Uapoen eguraldiak laguntzen bada! 	









Ikastaroak noiz: Ekainaren 29tik uztailearen 29ra. **Ikastaroen iraupena:** aukeran dago 2 asterako edo hilabete baterako izena ematea. **Zenbat orduz:** Egunean bi orduz ingeles-eskolak metodo komunikatiboa erabiliz eta 2 orduko jarduera osagarria ingelesez. **Ordutegia:** 09.30etatik 13.30etara. **Adina:** 4-12 urtekoak. Talde homogeenok adin eta mailaren arabera. Haur-kopuru mugatua. Izena emateko epea zabalik dago.

25 urte baino gehiagoko esperientziarekin

Beatriz

ongizate zentrua
centro de bienestar

TERAPIA INTEGRALA
BAKOITZAREN
GORPUZKERARI
HOBEKIEN DOAKION
TRATAMENTUA,
KLINIKOKI ZIURTATUA



Tresna aurreratuenak eta diagnostiko zehatzak.

Terapia integral eta pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, bakoitzaren jateko eta pentsatzeko modua, genetika, gorpuzkera eta organoen barne eta kanpoko funtzionamendua kontuan hartuz.

Alterazioaren jatorria bilatzen dugu eta bakoitzaren gorpuzkerari hobekien doakion programa erabili:
NUTRIZIO ZELULARRA, OSAGARRIAK, SENDAGAI TXINATARRAK, AYURVEDA, HOMEOPATIA...

Gorputzaren azterketa doan egiten dugu eta alterazio aunitz landu: ARGALTZEA, GRASA LOKALIZATUA, DIGESTIO ALTERAZIOAK, HAIZEAK, LIKIDOEN ERRETENTZIOA, ZIRKULAZIOA, ARTROSIA, ARTRITISA eta ANTSIETATEAREN, URDURITASUNAREN ETA ESTRESAREN ERREGULAZIOA.

bono bereziak

Mikel Iriarte (1. tronpeta), Egoitz Telletxea (baxua), Karlos Senper (soinu teknikaria) eta Xabier Arriola (2. tronpeta) lesakarrak, Oibarko Fernando Otanok (kantaria), eta Ion

Koldo Arburua (gitarra) eta Beñat Mitxelena (akordeoia) aranztarrek osatzen dute azken aldian hain ezagun egin den Txamukos mariatxi taldea. Urtebete baino ez da pasatu

emanaldiak eskaintzen hasi zirenetik, eta dagoeneko euren lehenbiziko diskoa kaleratu dute: *Bidean topatuko gara*. Han eta hemen aurkezpenak egiten ari dira.

Beñat MITXELENA DANBORIENA | Txamukos musika taldeko akordeoilari aranztarra

«Euskaraz inoiz kantatu gabeko bertsio bat sartu dugu diskoan»

G. PIKABEA | ARANTZA

Nolako balantzea eginen zenuke orain arte egin duzuen ibilbideaz?

Orain arte hagitz balantze baikorra egiten dugu. Lehenbiziko urtean 30 bat emanaldi egin ditugu eta hagitz gustura ibili gara. Entsaiaitu ere ausarki egin genuen, hasieran bereziki, gero uda aldera bestaz besta ibilita errodejara egin genuen eta gauzak gero eta errazago ateratzen dira. Azken hilabeteetan, berriz, diskoarekin buru-belarri sartuak ibili gara: grabazioak prestatu, entsaiatu... Orokorrean, hagitz gustura gaude. Giro ona dugu taldean eta taula gainean disformatu egiten dugu. Jendeari aunitz gustatzen zaio musika mota hau eta gure emanaldietan ere adin guztietako jendea izaten da. **Nolako esperientzia izan da diskoaren grabaketa?**

Gehienentzat esperientzia berria izan da. Behin estudioan sartuta, tentsioa nabaritzen da, dena ongi grabatua utzi nahi izaten da eta hamabortz aldiz errepikatu behar bada, hala egiten da. Azken finean, helburua diskoa ahalik eta garbiena eta politena egitea da. Hori bai, hasieratik garbi izan dugu diskoaren grabaketan ez genuela efektu berezirik eta horrelako gauzarik sartu nahi: plaze-



UTZITAKO ARGAZKIA

Goian ezkerretik hasita: Ion Koldo Arburua, Beñat Mitxelena eta Egoitz Telletxea. Behean, ezkerretik hasita: Mikel Iriarte, Fernando Otano eta Xabier Arriola.

tan ditugun tresna berdinak erabili ditugu, tranparik gabe. Beraz, erran daiteke diskoan ageri dena edozein kontzertutan egiten dugun musika dela, kalitate berdinekoa.

Zer aurkituko dugu diskoan?

Hamalau kantaz osaturiko diskoa da. Kanta batzuk ezagunak dira, mundu guztiak dakizkien horietakoak, baina gure ukitua emanda, noski. Bertze kanta batzuk ez dira hain ezagunak, baina erritmo, melodia eta letra aldetik hargituz politak direla iruditzen zaigu eta horrega-

HASIERA

2014ko irailean hasi ziren entsaiatzen eta lehenbiziko emanaldia 2015eko otsailean egin zuten, Arantzan.

ORDEZKOAK

Taldekieetak batek ezin duenean, hauek dira ordezkokoak: Joseba San Sebastian (baxua), Iñigo Etxepare (gitarra) eta Julen Suarez (tronpeta) lesakarrak, Andoni Mitxelena (akordeoia) aranztarra eta Igor Telletxea (soinu teknikaria) beratarra.

tik sartu ditugu. Euskarazko bertsio batzuk ere egin ditugu, baten bat nahiko berria, orain arte inork euskaraz kantatu gabea. Euskarazko kantak sartzeari ere garrantzia eman diogu: mariatxi musika gaztelaraz kantatzen da tradizionalki. Gainera, gure kantaria ez da euskal hiztuna eta beretzako ez da batera erraza euskaraz kantatzea. Hala ere, gure inguruan mariatxiekiko dagoen afizioa ikusita, euskara sartzeari garrantzia eman diogu.

Zergatik paratu diozue izen hori diskoari?

Diskoaren izena *Bidean topatuko gara* da. Mezu horrekin, batez ere jendeari plazan elkar ikusteko ilusioz gaude la erran nahi diogu eta momentu onak pasatzeko prest gaude. **Nolako etorkizuna ikusten diozue taldeari?**

Oraingoz, ez dugu luzera begira denbora aunitz pasatzen. Egunero gauzetan kontzentratzen gara, eta aurtengo urterako emanaldiak lotzen eta kanta berriak entsaiatzen ari gara. Hortik gora, ez dugu gehiegi pentsatzen. Gustura aritzen gara eta emanaldi bakoitzean disformatzea da gure helburua.

Zein dira taldearen erronkak?

Erronketako bat, dudarik gabe, kanta propio batzuk sortzea da. Orain arte, bertsioak egin ditugu, gure ukitua eman dizkiegu kantei, baina kanta propioak edukitzeak beretze dimentsio bat ematen lioke taldeari, beti ere, kanta horiek arrakasta lortzen baldin badute. Hortaz aparte, pixkanaka-pixkanaka, gure soinu ekipoa hobetzen ari gara eta horretan segituko dugu: mikrofono berriak, nahasketa mahaia... Soinuaren kalitateari garrantzia haundia ematen diogu eta horretan jarraitzea espero dugu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Joan den martxoaren 18an aurkeztu zuten Baztango Zaporeak Elizondon.

NEKAZARITZA → BAZTANGO ZAPOREAK

Baserritik mahairat, maitasunez eginak, amalurra zainduz

Baztango ekonomia indartu eta beraien produktuak ezagutzera emateko ekimen berria paratu dute martxan

Baztanen lehengaia egin, eraldatu eta merkaturatzen duten hamahiru ekoizle eta transformatzaile profesional bildu dira Baztango Zapo-

reak-en baitan. Tokiko ekonomia indartzeko Baztango Udalarekin izandako elkarlanetik jaiotako berriez egitasmo bat da.

G. PIKABEA | BAZTAN

Baserritik mahairat, maitasunez eginak, amalurra zainduz. Lelo horren jaiotza da Baztango Zaporeak. Tokiko ekonomia indartu eta inguruan ezagutarazteko asmoz, dutena egituratzeari ekin diote Baztanen, eta bai-laran lehengaia produzitu eta transformatzeko duten profesionalen eta

Baztango Udalaren arteko elkarlanetik Baztango Zaporeak sortu dute. «Oraingo elkarlanerako gune bat da, eta erabilgarri ikusiko balitz, pittanaka-pittanaka helburua elkarrekin bat sortzea izanen litzateke». Halaxe azaldu digu Joseba Otondo Baztango alkateak. Hasteko, denentzako proiektua de-

finitu eta parte hartzeko irizpideak finkatu dituzte.

Ez da tokiko ekonomia indartzeko Baztanen egin duten lehendabiziko eta azken saiakerak. «Deus ez da hutsetik sortzen», dio Otondok: «orain dela urte bat Gasnaren Astea antolatzen Baztanen, eta orduko hartan hainbat elkarrekin ibili ziren lanean:

Hazirik Hozie, Cederna-Garalur... Ondotik, eta horren nolabaiteko segida bezala, 2015eko udan Baztangoa izeneko ekimena abiarazi genuen Udalaren bulkadiz, baina neurri batean, aitzineko esperientzia horretan oinarrituta. Eta Baztango Zaporeak horren guztiaren segida bezala ulertzen dugu». Izan ere, alkateak kontatu digunez, «gai honen gaineko gogoeta aspalditik dago Baztanen, eta Baztango Zaporeak ahalgin kolektibo horren baitan kokatzen den definizio momentu bat da». Geroztik sortu du Udalak Zerjan, halako Baztan ekimena, bertako jateko koei buruz kontzientzia piztu eta tokiko ekonomia indartu nahian.

DENETARIKO EKOIZLE ETA ERALDATZAILEAK

Oraingo, lehengaia sortu, behar den kasuetan eraldatu, eta saltzen duten hamahiru ekoizle-eraldatzaile profesional bildu dira: Infernuko eta



DATUA

13

EKOIZLE-ERALDATZAILE profesional bildu dira oraingo Baztango Zaporeak-en baitan. Denen artean proiektua definitu eta parte hartzeko irizpideak finkatu dituzte.

Kortariko gasnak (Lekaroz), Lau haizetara oilasko ekologikoak eta kanperoak (Arizkun), Orraxa ezti artisaua (Arizkun), Pittika ahuntz esne gordinez egindako gasna ekologikoa (Erratzu), Larralde sagardo ekologikoa (Lekaroz), Jauregia behi esneki ekologikoak (Aniz), Ernaut euskal txerri produktuak (Elizondo), Etxetxia ardi

latxaren esne gordinarekin egindako gasna ondua (Elizondo), Dutarimuno ekologikoki ekoizturiko arrautzak (Arizkun), Beitikotx abereak (Almandoz), Irular marmeladak (Irurita), Baztango barazkiak (Irurita) eta Baztango Xurie mendiko mahastigintza ekologikoa (Arizkun).

Ekoizpen ekologikoa ari dira batzuk, eta modu konbentzionalean bertzeak. Baina beraien dioten bezala, «denak nekazaritza arduratsuaren printzipioei jarraiki, ingurumenazainduz».

HASMENTA BAINO EZ

Baztango alkatearen irudiko, «landa eremuetako tokiko ekonomia indartzeko elkarrekin beharrezkoak dira, landa eremuetan ari direnak baikoitza bere baitatik ari baitira, autonomo gisa. Baztanen gisa horretara ari direnak kontratuen %48 dira. Bertze egitura ekonomikoa duten inguruneetan, aldiz, gisa honetako afiliazioarekin ari direnak populazioaren %15aren bueltan ibiltzen dira». Hala, Otondok azaldu digunez,



GARRANTZIA

«Landa inguruneetan, bertako elikagaien eraldaketan oinarritutako jarduera lerroak eta ekonomikoak arrunt garrantzitsuak dira enplegua sortu, ekonomia bizkortu eta jendea bertan gelditzeko eta kasu honetan, ingurunearen kudeaketarako, paisaia erakitzeko, identitatea sortzeko, ezagutzak mantentzeko....»

Joseba OTONDO
Baztango alkatea

«Landa eremuetan bertako ekonomia bulkatzeko beharrezkoa da bertan ari direnekin

elkarlana bulkatzeko jarduera multzo desberdinak antolatu eta egituratzea».

Horrez gain, «landa inguruneetan, bertako elikagaien eraldaketan oinarritutako jarduera lerroak eta ekonomikoak arrunt garrantzitsuak direla», uste du alkateak: «tokian berean enplegua sortzeko, jarduera ekonomikoa bizkortzeko, jendea bertan gelditzeko eta horrekin batera, eta kasu zehatz honetan, bertze balio erantsi aunitz ditu: ingurunearen kudeaketa, paisaia jakin baten erakuntza, identitate baten sorkuntza, ezagutza pila baten mantentzea...». «Aldika, landa eremuetan, nekazaritzako lehengaiak ekoizten direla ikusten dugu, baina horien transformazioa kanpoan egiten denez, transformaziotik etortzen den balio erantsi guztia ere kanpoan gelditzen da». Ekimen huneekin, «pittanaka-pittanaka bertze nekazaritza-eredu bat bulkatzeko aukera ikusten dugu», dio alkateak.

Bide honetan «sankontzeko aunitz» dagoe la iritzita, aitzinera begira lantzeko proposamen batzuk ere badituzte: «lanbide heziketaren eskaintza berritu, Juan-seneako teknifikazio zentroa indartu, formazio eta aholkularitza berezitua eskaini, bertako kontsumitzaileen artean kontzientzia piztu...».

Gisa berean, «Baztan hamabortz herriko udalerrri bat izanik, binorabidetan jokatu» nahi dutela ere adierazi digu: «alde batetik, eskualde mailan antolatuz eta ekimenak bideratuz, eta bertetik, Baztango markoa egituratuz eta hori ere aprobetxatuz, hainbat elkarlanetarako Baztan eremu dinamikoak baita».

'BAZTANGO ZAPOREAK'-EKOEKIN SOLASEAN

Mikel ALTZUART | ARIZKUNGO DUTARIMUNO ARRAUTZAK



«Betiko indarguneak hor ditugu, ilusioa eta gogoia, baina ahulgune aunitz ditugu. Hortaz, arras inportantea da ekoizleen aldetik gero eta inizatiba gehiago izatea eta ekimen hau interesgarria da gure ahulguneak indartzeko. Oro har, ezagutzera emateko balio behar du, eta inoren zain egon gabe, gure baitatik aitzinera segitzeko ere bai».

Mikel AZKARATE | ANIZKO JAUREGIA ESNEKIAK



«Bertakoak gara, lurrari lotuak lan egiten dugu, batzuk ekoizpen ekologikoa ari garenak eta bertzeak konbentzionalean, eta gure produktuak bertan saltzea da gure nahia. Horretarako halako proiektu bat beharrezkoa da, gehienbat inguruko jendeak zein produktu ekoizten ditugun jakin dezan».

Julen ARBURUA | INFERNUKO ETA KORTARIKO GASNAK



«Lurrari lotuta dauden Baztango produktuak ekoizten ditugu eta nekazaritzatik bizi nahi dugulako eta tokian tokikoa bultzatu nahi dugulako sartu gara honetan. Halako proiektuak onura aunitz ditu; batetik, eredu industrialetik bereiztea dakar eta bertetik, Baztanen ekoizten ez diren produktuetatik desberdintzea».

Jesus Angel GARCIA | LARRALDEA SAGARDOTEGIA



«Horrelako zerbaiten beharra bazegoen. Bertan produzitu eta elaboratzen dugunak elkartu eta gure produktuak ezagurataraztea garrantzitsua da. Ikusiko da nola egiten duen honek aitzinera, baina urrats inportantea da. Bailarako ekonomiaren zati garrantzitsu bat gara, nahiz eta orain arte existituko ez bagina bezala izan».

'BAZTANGO ZAPOREAK' IZATEKO BALDINTZAK

Sortzen diren produktuek ondoko baldintzak bete behar dituzte Baztango Zaporeak-en barne sartzeko:

- **Ziklo osoa baserrietan egitea:** lehengaiak sortu, behar den kasuetan eraldatu eta saldu.
- **Lurrari lotutako nekazal produktuak** sortzea.
- **Etxeko esplotazioak** izatea, eredu industrialetik kanpo.
- **Ardi, behi eta ahuntz esnekietan** esnea %100 Baztangoa izatea.
- **Barazkiak, lekariak eta oilaskoak** %100 Baztangoa izatea.
- **Arrautzak** oiloak Baztanen %100 errutea.
- **Ardoan** mahatsa %100 Baztangoa izatea.
- **Sagardoan** sagarra %80 Baztangoa izatea.
- **Mermeladak:** lehengaiak %80 Baztangoa izatea.
- **Eztia:** urtean sei hilabetez guttienez erle kutxak Baztanen edukitzea.
- **Haragiak:** buruak Baztanen sortuak eta haziak izatea.
- **Salmenta zuzenari lehentasuna** ematen diote, bide laburrekoari.



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Panama eta gu

Panama-Panama-Panama... haraxeta joan omen dira miloika euro. Eta guri zer inporta zaigu?, bakoitzak bere diruarekin nahi duena egin dezake, ez? Bai hala da, baina diru horren puxka bat Administrazioari eman ondotik. Hor dago kokka: gure diruaren parte bat Administrazioari eman beharra. Eta a zer mina ematen digun horrek! Berdin da dirudunek eman behar duten milaka euroak edo guk eman behar ditugun ehunka euroak. A zer mina! Handik eta hemendik zirrikituak bilatzen ditugu ahalik eta zerga guttien ordaintzeko. Beti horrela izan da. Horrekin bizi gara. Hori da gure artean ongi ikusia dena... eta horrela jokatzeko ez duenari arraro begiratzen zaio.

Ez dakit, baina agian gisa hortako jende arraro gehiago izatea komeniko litzaiguke. Interesatzen zaiugulako ospitaletarako, eskoletarako, karreteretarako, udaletarako, zahar-etxeetarako, haurtzaindegietarako eta hainbortze gauzendako dirua izatea. Eta nondik ateratzen da diru hori?, ba Administrazioetik. Eta Administrazioak nondik biltzen du diru hori? Gure sakeletatik. Beldur naiz Panaman gordetzeak edo gure etxeko oheko matalaza azpian gordetzeak, biek kalte egiten diotela gure gizarteari.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Asko maite zaitut

Umeei emanarazi bai, baina zenbatetan ematen diogu muxu maite dugun lagun, bikote, guraso, senideari? ETBko saio batek azaltzen du zeinen zail egiten zaigun *maite zaitut* erratea («esan gabe somatzen da», «begiek adierazten dute estimatzen dugula», «bizkarreko batekin erakusten dugu»...). Aurrez aurre baino, telebista kameran aitzinean erratea nahiago dugu, pentsa!

Nabarmentzekoak



Peio PEGNEGUY
Orabideko artzaina

27 buru bildu zituen ahari lehiaketaz gain, Elizondoko Udaberriko Ferian urteko ardi gasnari lehen kortea eman zion Orabideko Peio Pegneguy artzain eta gasnagileak.



Aimar OLAIZOLA
Hamalagarren txapela

Eskuz binakako hirugarren txapela lortu du Olaizola II.ak, Urruti-koetxearekin bikote eginez. Honela, 14 txapel handi ditu, banaka beste 4 eta lau terdian 7 baititu goizuetarrak.



Auxtin ZAMORA
Hatsaren Poesia Eguna

Olerki bilduma berria aurkeztu zuten apirilaren 3an Senpereko Larraldean, Hatsaren 18. Poesia Egunean. Gainera, Auxtin Zamora antolotzailea omentzeko ere baliatu zuten eguna.

Atzera begira → 2006-V-4 / TTIPI-TTAPA 421 zk.



Ameriketan ibilitako Sunbillako artzainei buruzko liburua

Amerikano ugari eman dituen herri bat bada, hori Sunbilla da. Azken hiru hamarkadetan ohitura bihurtu da maiatzaren 1eko 'Artzain Amerikanoen besta'. Baina duela hamar urtekoa berezia izan zen, *Sunbildarrak Ameriketan: Sunbilla un pueblo de emigrantes* liburua aurkeztu baitzuten. Emigrazioak Sunbillan izan zuen indarraren erakusgarri, kopuru bat ematea aski da: 1898tik 1993ra, mende eskasean, 313 sunbildar joan ziren Ameriketara. Istolako Jesus Mari Jorajuriak TTIPI-TTAPARI aipatu zionez, «Hemen antzinabiderik ez zenez aita eta bederatziti senide joan ginen artzain Ameriketara».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirrena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Asmatzen ari ote gara

Esteban IRUSTA MALLEA

noiz inori entzun diot, berak ez duela inoiz huts egin bere bizitzan. Handiuste galanta deritzot horrela pentsatzeko duenari. Nahiz eta ahalegin guztiak egin, denok egiten ditugu hutsak. Ez dago inor dena ongi egiten duenik. Beti gelditzen da hobeto egiteko tartea. Egunero, lan desberdinak egitea tokatzen zaigu, eta denetan ikasiak, adituak izatea ezinezkoa da. Eta ustez, adituak, ikasiak garen lanetan ere perfektuak izatek urruti gaude, beti gelditzen da hoberako tartea. Zenbateraino den hobetzeko tarte hori ez dakigu. Kirol mailan, hor dago eztabaida errekorrak, marka berriak lortzen direnean. Noiz arte jarraituko dute markak hobetzen? Hor daukagu futbola ere, kirolen artean jarraitzaile gehien dituenen. Mugitzen duen diruari begiratzen badiogu, hola da. Txikitatik lan horretara burubelari jarduten dira, eta halere, zenbat akats ikusten ditugu partida bakoitzean. Akats gutxien egiten dituen taldeak irabazten du. Egia da akats gehienak aurkariaren eraginez izaten direla. Baina gizakiaren hutsegiteak adierazteko balio du. Baina gizakiak baditu beste lan garrantzi handiagokoak, saihestezinak direnak, eta ikasketa berezirik egin gabe egiten dituenak. Eta horietako bat seme-alaben heziketa da. Guraso izatea benetan zaila da. Behar bada, inoiz baino zailago. Horretan denok bat etorriko gara, nahiz eta behin, gai honetaz hitz egiten hasi eta berehala ama gazte batek honako erantzunarekin moztu zuen hizketaldia: "Guk badakigu". Benetan harrigarria. Sasoi baten gurasoek bere mentalitatea semeengana transmititzea samurragoa zen. Beraiei deiak (zuzenak edo okerrak) finkoagoak, zalantza gutxiagokoak ziren. Ideia horien artean erlijioak leku handia betzen zuten. Gizakia eta gizartea ideia horietan oinarritzen zen gehienbat. Garai hauetan dena aldatu da. Erlijioak ia ez du eraginik gizartean. Gaur egun, dena edo ia dena zalantzan jartzen da. Bizitzaren ikuspegia asko zabaldu da. Mundu guztiko informazioa bakoitzaren saketara heltzen da egunaren 24 orduetan. Mugagabeko eta kontrol gabeko informazioa daukagunez, zaila egiten zaie gurasoei nondik nora jo, zein ideiak diren baliotsuenak semei transmititzeko. Gurasoak aparte, beste informazio asko bereganatzen dute haurrek. Gurasoen zalantzei, irakasleen zalantzak gehitu behar zaizkie. Denak eredu faltan daude. Krisia sakona da. Guraso asko ere ez dago gustora, ez dago ados bere seme-alaben bizimoduz. Ezintasunez ikusten dute bere burua nahiko luketen heziketa emateko. Irakasleak ere berdin dabilta ezjakinean nondik nora jo, ikasgelako disziplina ere ezarri ezinik. Beste aldetik, guraso eta irakasleen artean ere ez dabilta oso koordinaturik. Gurasoak beti bere semeen alde agertzen dira eta horrek irakasleen agintea, autoritatea, ospe-galtzea dakar. Irakasleak horren jabe dira, eta ikusiz gurasoen babesa dutela, irakasleen lan baldintzak asko zailtzen dituzte. Horrela daramagu urte asko, eta oraingoaz, ez da ikusten irteerarik. Bitartean, gazetxoak ia nahi dutena egiten. Helduen artean kritika asko jasotzen dituzte, baina nolabaiteko etsipena dagoela dirudi, inolako konponbiderik izango ez balu bezala. Horrela ote?

OSASUNEZ

Zorriak

Konbxi CALVO (Malerrekako Osasun Zentroa)

Buruko zorriak hegaliak gabeko intsektu txikiak dira. Buruko ileetan bizi dira soilik, eta kasu larrietan bekainetara eta betileetara heda daitezke. Gizakien parasitoak dira, hau da, gizakien odola beharrezkoa dute bizirauteko, bertzela hiltzen dira. **Buruan zorriak izatea ez da lotsatzeko zerbait. Ez du gizarte-maila zein den erran nahi eta ez da garbitasun ezaren seinalea. Adin guztietako jendeak izan dezake.**

Buruan arteko zuzeneko kontaktuaren bidez kutsatzen dira normalki.

Infestazioaren seinaleak:

Baldintza normaletan etengabeko azkura da sintoma bakarra. Pertsona askok ez dute ezer nabaritzen. Era berean, arraskatze bortitzek zauriak sor ditzakete, gero infekta daitezkeenak.

Prebentziozko ekintzak: Neurri nagusi eta ia bakarra, haurren burua noizbehinka begiratzea da (begi hutsez edo orrazi xehearekin): Belarri atzea eta garondoa begiratu behar dira bereziki. Azalaren egoera ere aztertu. Eskolan edo pistzinaan, sintomak baldin badaude, berehala begiratzea komeni da. Bestela, astero sistematikoki errebisio bat egitea komeni da. Saiatu buruarekin kontaktua duten objektuak ez konpartitzen. Familia alorrean, komuneko eta apaintzeko objektuen erabilera pertsonala sustatu behar da. Ilea bilduta eramatea gomen datzen da.

Infestazioaren kasuan tratamendua:

1) Ezabatze mekanikoa (orrazi xehearen bidez): Bizpahiru egunero, bi astez. Orrazi elektrikoak ere erabil daitezke eta osagarriak, baina horiek ez dituzte arrautzak desagerrarazten.

2) Tratamendu farmakologikoa: zorriak bizirik baldin badaude. Intsektizida produktuak: Piretrinak dira lehen aukera, eta horien artean %1 permetrina duena; Malation duten intsektizidak tratamenduak huts egiten duen kasuetarako bakarra gorde behar dira.

Nola egin?:

1. eguna: produktu farmakologikoa eman ile lehorrean, eta segidan orrazi xehea pasatu; 3. eta 5. egunak: orrazia berriz pasatu; 8. eguna: produktu farmakologikoa erabili, eta segidan orrazi xehea pasatu; 10., 12. eta 14. egunak: orrazia berriz pasatu. Tratamendu hau behar den bezala ez bada egiten, ez du efekturik egiten.

Etxeko konponbideak (osagarriak, ez dira hain eraginkorrak): Olio egindako substantziak; Ozpina; Leungarriak; Uxagarriak.

Irakurleak mintzo



Bota bertsoa

Xabi MAIA (Elizondo) • Doinua: Naufragoarena

Aroztegia, eta orain zer?

Ongi etorri izan hotela berdin putt, birdie eta eagela turismoaren akuilu oro gurera etor daiela (bis) baina etxe ta partzela dira batzuen pastela bete nahi bada sakela modu horretan eraikitzea denek jakin dezatela zulo beltzera eraman gaitun eredia izan dela (bis).

Berrehun etxe berrien zama herri berri bat, bertze harana mapa berri bat, behar berriak izena? eta izana? (bis) non da hirigintza plana? non paisaia baten xarma? dena ez baita porlana beharrezkoa daukagu, ados, baina ze nolako lana? burbuila batek bere barnean beti airea darama (bis).

UGPS inposaketa iraganera berriro buelta komeni bada ezerezean uzten baita "aldaketa" (bis) beharrezkoa tarteka dugu herri galdeketa baztandarren gogoeta erabakiak partekatzea hitzak edukiz beteta geroari bai edo ez erran demokrazia da eta (bis).

nean, zenbat aldiz zuten baserrira igotzen nintzenez, aitzakia galdetuz behorak edo zaldiz, ongietorria egiten zenidan eskuzabal eta poz haundiz; orain ezin dut sinistu, ez zaitudala ikusiko berri.

Sukaldera sartu orduko, kafea bertzen eta janaria mahai gainean, jan eta edan egiten nuen nahi adinean.

Guretzako izaten zenuen maitasuna sartua barrengo zainean, nahiz deus gutxi ematen nizun ordainean.

Berriz ere baserrira igo gabe ez dut etsiko, hor daudenak ez ditut ahaztuta utziko. Dolu minak emango dizkiet lehendabiziko, joaten naizenean berriro seguru nago ez didatela aterik itxiko.

sorrarazi izanagatik.

Hala ere, beti geldituko zaizkigu denaren gainean zure irribarrea, alaitasuna, poza, positibotasuna, baikortasuna, zure 126 esaera zaharrak, gutxienez, zure abesti sail aberatsa, zure eskuzabaltasuna, eta, azken urteetan, oparitu dizkiguzun xelebrekeria barrerri guztiak. Horiek poza eta alaitasuna ekartzen dizkigute, momentu goibel hauetan.

Eta, bukatzeko, amaitxo ona, Nieves Madotz Azkue, Arribeko emakume handia, zure izenak elurrarekin uztartzen zaitu. Zenbat aldiz ez ote duzun esan, Iruñean elur malutak botatzen hasten zenean, "nahiago nuke metro erdi bat gutxienez botako balu!". Eta, hara non, zure azken agurraren egunean, agertu ziren Iruñeko zeruan, gutxitan ikusten diren elurmaluta erraldoi zuriak, azken bidaian igotzen lagundu nahi balizute bezala, gora eta gora, hegan, zure arimaren zurtasun eta garbitasunaren pareko zerbait lortu arte.

Hartu, ama, inoiz eman dizudan musurik goxoena eta maitekorrena.

Agur Malen

Juan Mari ZUGARRAMURDI (Goizueta)

Agur Malen:

Penaz betea daukat bihotza zurekin, bedekinkatua zara zu zaude ten guztien artean eta bedekinkatua utzi duzun familia hemen.

Jai egunetan edo paseorako gogoia neuka-

da sumatzea eta entzutea nola kexatzen zinen oinazeagatik, mugitzen zintuztenean, zu, behin ere kexatu ez zarena, bizitza osoan dena jasan eta aguantatu duzuna. Oso negargarria izan da guretzat, ikustea nola zure aurpegi alaiaren agertzen zen minaren zantzua, nola zure begitarresendoa pixkanaka edo azkar samar, desitxuratzetzen zen, eta gero eta gehiago gogorarazten ziregun, azken bidaiaren hasiera oso hurbil zegoela (...).

Baina, betirako abiatzeko une tragiko hori beti gertatzen zaigu zail, desegoki eta lazarria. Eta orain, jadanik ez zaudenean, oraindik jarraitzen dute iristen gutunak eta propagandek zure izenean, adarra jo nahi balidate bezala, ilusio faltsuak egin ditzadan, pentsatuz oraino hementxe zabilzala tirrikitarra eta edozein momentutan esanen didazula "Xanti, nahi duanean etorri bazkaltzera!".

Tristura bereziarekin gogoratzen dut, noiz edo noiz, elkarrekin haserretzen ginenean, eta bakeak berehalaxe egiten ez bagenituen, nola sumatzen nuen zure begi barrenetan bihozmin ikaragarri handi bat, eta hitzik gabe, garrasika eskatzen zenidan adiskidetu gintezan. Zu beti egoten zinen barkatu eta baketzeko prest, berehalaxe ahazten zenituen liskarrak, gatazkak eta istiluak, ez zinen batere gorrotatzailea. Orain, damututa, -berandu- barkamena eskatzen dizut, halako egoera ergelak

Ama onari

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ (Auritz)

Oroitzen zaitudanean, ama, sukaldean egoten zara, mahaia bostentzat ipinita, aulkian eseri eta leihotik begira, kristala lausotzen duen lurrina kendu gabe, eta ni -badakit- zeure begien ondoan nagoela".

Mikel Laboa - Hamalau.

Martxoaren 13an joan zinen, ama ona, betiko, behin ere ez itzultzeko berriz mundu honetara; dagoeneko, zure gorputzak ez omen zuten konponbiderik. Nekatuegia omen zegoen; higatuegia. Eta horrelaxe, txoritxoak elur eta izotzetan bezala, joan zinen bukatzen, kandelak amaieran legez, joan zinen itzaltzen.

Eta, zeinen hutsune handia gelditzen den etxean zure presentziarik gabe! Hutsune bertezina. 30 urtez elkarrekin bizi izan ondoren, zure falta oso nabarmena da. Oraindik, edozein leku eta edozein momentutan agertzen zaizkit zure irudiak eta oroitzapenak; ematen du ez zarela benetan joan.

Tristeia izan da ikustea, nola pixkanaka behar zenuen laguntza gehiago ibiltzeko eta mugitzeko. Mingarria izan da ohartzea, nola kalera ateratzeko, behar zenuen gurrpil-aulkia. Tamalgaria izan da nabaritzea, nola azkenean, jateko, edateko, oheratzeko, eta abarrerako behar zenuen norbaiten laguntza. Halaber, oso gogorra izan

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Europarrok naturaren oso pertzepzio okerra daukagu. Guretzat paisaia polita golf zelai bat da: garbia, txukuna... Zenbat aldiz esaten da *basoa zikin dagoela sasi asko dituelako*, edo kexatu gara ibaietako egur hilaz ibaiari dakarkion onuraz ohartu gabe? Uholdeak gehienetan ez dira gertatzen ibaia zikin dagoelako, ibaiertzak okupatu ditugulako baizik».

Amaior B. BLANCO
Sarako olerkaria
Ipar EHko Hitzza 2016.04.01



«1952an Iruña (Euskal Jai), Donostia (Galarreta) eta Madril (Recoletos) pilotalekun artean jokatzaren txapelketa irabazi nuen. Egia da oso urte onak izan nituela, bikotean hirukoteen kontra jokatzeko edo Jesus Abrego handia, Salsamendi III, Pablo Lekunberri, Raúl, Olaberri, Arbizu edo, besteen artean, Ezkurra bezalako arerio gogorren kontra».

Juan BARAIBAR
Aresoko erremontelari ohia
D. VASCO 2016.04.01

11 galdera labur

Nor dugu Izargi?

Ixtente erizaina izanen den eta Iruritan bizi den gazte Arraioztarra.

Zein afizio dituzu?

Musika entzutea maite dut, baita lagunekin kafe edo infusio baten bueltan solastuz amestea ere.

Gustukoen duzun kolorea?

Kolore aunitz ditut gustuko, baina bat aukeratzekotan morea aukeratu nuke; sinbolizatzen duenagatik akaso.

Sahara aldean ibili zara berriki.

Zer topatu duzu bertan?

Hitzez azaldu ezin den errealitate bat; imajinatzen saiatuta ere imajinatu ezin dena. Bertze mundu bat harpatu du gure han. Esperientzia bezala arras gomendagarria da, baina guretako esperientzia bat izan dena haien eguneroko bizitza dela ikustea gogorra da.

Zer dugu haiengandik ikasteko?

Aunitz. Bi hitz azpimarratuko nituzke: eskuzabaltasuna eta duintasuna.

Zer du soberan Arraiozkek?

Etxe eta baserri hutsak.

Zer du faltan?

Deus ere ez... ttikitasunak eta dena ez izateak ematen dio duen xarma.

Zer behar duzu zoriontsu izateko?

Gehienetan gutti aski dut, bertze batzuetan berriz sobera behar. Hala ere, eguneroko edozein gauzatxo ttikik zoriontsu egiten nauela erran dezaket.

Zerk lotsatzen zaitu?

Euskaraz dakien jendearekin erderaz solastu beharrak.

Bizi nahiko zenukeen bizipen bat?

Ikasketak akitzean herrialde desberdinetara bidaiatu nahi nuke, bertze bizimodu bat, bertze jendemotat bat, bertze kultura bat... orokorrean bertze errealitate bat ezagutuz ikasteko.

Amets bat...

Euskal Herri feminista, euskaldun eta libre batetik sahararrek nahi bezalako Sahara libre bat ezagutu ahal izatea.



Izargi ZUMARRAGA ETXANDI → Iruritan bizi den arraioztarra

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegará 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 0899
www.sarobe.net

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrokoak

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

BEHOBIA
Pneumatikoak eta zerbitzuak
Marka guztietako gurpilak
nitrogenoarekin puztea dohainik
Mekanika orokorra
(olio aldaketa, frenoak, distribuzioak,...)
Alineazioak
Europa kalea, 18 - ZAISA I (Behobia) IRUN
Telf: 943 63 56 01 E-mail: pneumaticosbehobia@gmail.com

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak
Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 23an
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BORTZIRIAK

GIZARTEA → APIRILAREN 2AN MANKOMUNITATEAREN NABEAN

43 familiaren artean sei Tona konpost banatu dute Alkaiagan

Udaberritik udazkenera konposta guneeatik zuzenean banatuko dute

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako hondakinen Mankomunitateak neguan zehar pilatu den konposta banatu zuen Alkaiagan duen nabean. Alde batetik, garbitutako konposta zuten, lorontzietan erabiltzeko prest. 2 Tona inguru banatu zituzten. Bertze aldetik, garbitu gabeko 4 Tona konpost inguru banatu ziren baratzetan erabiltzeko. Jende aunitz hurbildu

zen, guztira 43 familia.

Argazkietan ageri den bezala, zakuak, ontziak eta poltsak eraman zituzten eta konpostarekin bete zituzten apirilaren 2an. Horrela, Bortzirietako Hondakinen Mankomunitateak bildua zuen konpost guztia eraman zuten.

UDABERRITIK UDAZKENERA

Udaberrian eta udan konpost eskaera gehiago izaten dituzte eta auzo konpostaguneetatik bertatik banatu nahi dute zuzenean, nabean pilatu gabe. Horregatik, zerrenda bat osatu nahi dute konposta eskuratzeko interesa dutenekin. Horrela, gune batean konposta prest da-

goenean, zerrendan da goen jendeari deituko zaie beraiek zuzenean puntura joan eta bertatik Mankomunitateak zehaztutako konpostagailua edo gelaxka hustutzeko.

Zerrendaren ordena eskaeraren dataren arabera izanen da eta denei txandaka deituko diete, denek konposta hartzeko aukera izateko. Zerrendan izena eman ahal izanen dute konposta egiten dutenek bakarrik, bai etxeko konposta, baita auzokoa ere. Konposta garbitu nahi duenak Mankomunitateak duen makina erabili ahal izanen du.

Interesatuak deitu 670 522 975 telefonora edo



UTZITAKO ARGAZKIA

Neguan pilatutako konpost guztia eraman zuten Mankomunitateak Alkaiagan duen nabetik.

idatzi helbide elektroniko honetara: txomin@bortziriazabor.com.

BIGARREN HIRUHILABETEKO ZOZKETA

Aurten, urtero bezala, Baztango Udalak eta Bortziriak eta Malerreteko Mankomunitateak zonaldeko etxe guztietan banatu den egutegia prestatu dute. Ale bakoitzak zenbaki bat du urtean zehar egiten

diren zozketetan parte hartzeko. 2016ko bigarren zenbaki sariduna atera da eta 8717 zenbakia izan da. Saria eskualeko dendetan gas-tatzeko 300 euroko erosketa txartela izanen da.

Lehenbiziko hiruhilabeteko saria ez zen banatu. Saridunak Bortzirietako Mankomunitatera deitu beharko du ekainaren 30a baino lehen (948 63 52 54).

OSASUN TAILERRA

“AKUFENOAK ETA TXISTUAK”

ZURE ENTZUMENEAN BURRUNBA ETA TXIRRIKAK ERAGOZTEN ZAITU?
ISTRIPU, ERORKETA ETA POSTURA TXARREK, LEPOKO ORNO EDO ZERBIKALEK EUREN
POSIZIO EGOKIA GALTZEA DAKARTE.
HONEK, GARUN, BEGI ETA BELARRIAREN ARTEKO KONEXIO DESEGOKIA ERAGITEN DU.

**ARAZOAK AURREIKUSI ETA HOBETZEKO
AHOLKU ETA ARIKETAK**



QuiroVital
Quiropráctica vanguardista

Arnaud Mante, D.C.

Kiropraktikako
Doktorearen Eskutik

2016ko APirilaren 24an
19:30ean

KANTTONBERRI Kalea, 1 - 1.C
BERA

Informazio gehiago eskatzeko

948 631 403 Telefonora deitu

ESERLEKU-KOPURU MUGATUA, DEITU ZURE ESERLEKUA ERRESERBATZEKO.

GIZARTEA → APirilAREN 24AN

Bigarren eskuko merkatu ttikia antolatu du Labiagak

Igandean 09:00etatik 15:00etara kiroldegiaren aitzinean

TTIPI-TTAPA

Labiaga Ikastolako Guraso Taldeak bultzatuta, bigarren eskuko merkatu txikia antolatu du apirilaren 24an, igandean 09:00etatik 15:00etara kirol-

degiaren aitzineko eremuan. Eguraldiak lagunduko ez balu, Altzateko frontoian egingen litzateke.

Ikastolaren izenean postu bat jartzeko asmoa ere badute. Horretarako, materiala bildu nahi dute. Merkatu honetan edozeinek parte hartzen ahal du. Horretarako, bakoitzak bere postua jarri beharko du (mahaia eta behar duen guziarekin). Postua



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Errandonea eta Martinez txapelkun

Ander Errandonea eta Iñigo Martinez beratarrek irabazi zuten Lezamako pilota txapelketaren 57. edizioa, lehen mailako afizionatueta. Apirilaren 1ean jokaturako finalean ezustea eman eta garbi irabazi zieten Elorrioko Azpiri eta Lezamako Txaber Zabala beterano eta faboritoei, 22-11. Errandonea finaleko pilotari onena ere izendatu zuten.

jartzeagatik, Ikastolari 10 euro ordaindu behariko zaizkio. Norberaren baitan egonen da postua bakarka edo bertze norbaitekin osatzea.

Postua jartzeko interesa dutenek, Ikastolako idazkaritzara deitu behar dute (948 630172), izena emateko. Merkatuan bigarren

FLASH

Argazki lehiaketaren sari banaketa

Liburuaren Egunaren harira, *El viaje de las letras* emanaldia eskainiko dute apirilaren 22an, ortziralean 17:30ean liburutegian. Ondotik, *Irakurketa instant batean* argazki lehiaketako sari banaketa egingen dute.

Esnearen Liga

Berako taldearen bilera apirilaren 25ean, astelehenean 17:00etan egingen dute Beralandetan. *Nola hasi elikadura osagarriarekin bu-larra ematen dudan birtartean?* landuko dute.

eskuko materiala bakarrik saltzen ahal da (jolasak, arropa, liburuak, etxeko tresnak, altzariak...). Materialaren prezioa norberak jarriko du.

GIZARTEA → APirilAREN 9KO BATZARRA

1.539 bazkide ditu gaur egun Gure Txokoak

25 bakarrik bildu ziren batzarrean

TTIPI-TTAPA

Urteko batzar orokorra egin zuen Gure Txokoa elkarteak apirilaren 9an. Zuzendaritza batzordeak emandako

datuen arabera, gaur egun 1.539 bazkide ditu elkarteak, baina horietatik 25 bertzerik ez ziren agertu batzarrerara. lazko ekintzen inguruan bi gai aipagarri zeuden: Futbolearen jubenilen talderik ez dagoela aurten, jende gutti zegoelako erregionaleko



UTZITAKO ARGAZKIA

Zuzendaritza batzordeko kideak, azalpenak ematen bileran.

taldea eta jubenilena osatzeko, eta beraz talde bakarra atera zen, erregionalekoa, 24 kideekin. Txirrindularitzan, aipagarriena bes-tetako lasterketa ez zela egin, lanean aritzeko (bidegurutzetan egoteko eta motoekin) boluntario guttiegi zeudela-

ko. Felix Errandonea memorialean arazo bera izan zen baina mehatxarekin (boluntario gabe ezin da lasterketarik egin) egitea lortu zen.

Batzarrean solastutako bertze gaien artean aipamenak izan ziren elkarteak antolatzen dituen ekintzen inguru-

an. 2016ko plangintza- ren inguruan aipamen tiki batzuk egin ziren, 2015eko diru kontuak ere bai (elkarteko balantzea ongi dago, gastu guztiak kubritzeko adina diru sarrera dago), eta galdera-eskari-ekin eta luntzarekin bukatu zen bilera.

JATONE-COXOTEGIA

948 630 786
Alzate, 21 • BERA

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio individualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

BAR Botxo OSTATUA

Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

GIZARTEA → ANDRA MARIKO PATRONATUA

Zahar Etxean deitu ez zen bileraz epaia eman du Auzitegiak

EHBilduk dio arrazoia eman diola eta alkateak erantzun du estatutuek diotena bete bertzerik ez duela egin

Aitor AROTZENA

Luze jo badu ere (sei hilabete baino gehiago), martxoaren 10ean aterra den ebazpenak arrazoia ematen diola uste du EHBilduk: Nafarroako Administrazio Auzitegiak (TAN delakoak) erran du Jose Luis Etxegarai alkateak Andra Mariko Patronatuaren estatutuen eta legearen kontra egin duela, ezetz erran ziolako EH Bilduk joan den urteko ekainean patronatua biltzeko egin zuen eskari bati. Alkateak, bere aldetik, aipatu du errekurtsioa jarriko duela: «beti ere auzitegiaren erabakiak errespetatuz, akats han-

diak ditu, estatutuen interpretazio okerra egiten baitu eta horretaz gain, bere kompetentziaren gainetik egin du».

EHBilduk ohar bidez jakinarazi duenez, «Geroa Baik alkatetza eskuratu ondotik hartu zuten lehenbiziko erabakietako bat izan zen Andra Marin kontratazio sistema aldatzea. 2015eko ekainaren 30ean Andra Mariko Patronatua biltzea eskatu genion, Zahar Etxeko kontrataziorako lan poltsa gelditu zuela eta arrazoiak ezagutzeko». Uztailaren 2an lehendakariak uko egin zion bilera deitzeari, eta egoera horren aitzinean TAN-en errekurtsioa paratzea erabaki zuen EHBilduk abuztuaren 20an.

TAN-en ebazpenak dio Etxegarai alkateak ekainean bilera ez deitzeko Andra Mariko estatutuen inguruan egin zituen interpretazioak «absurdora» ermaten zutela eta «estatu eta legeen gainetik pasatu zela».



ARGAZKIA: R. ENETERREAGA

Gazte Eguna giro onean ospatu dute

Giro bikaina izan zen aurten ere Gazte Egunean. Buruztanka Gaztetxeko erraldoi konpartsa berria ere jendaurrean aurkeztu zuten. Inoiz baino gazte gehiago elkartu zen bazkarian (150 inguru) eta arratsaldeko jokuetan (argazkian) ederki pasatu zuten, baita gaueko kontzertu eta musika emanaldietan ere.

Alkateak, bere aldetik, uste du afera honek ez duela inolako ibilbiderik, «ebazpenak berak onartzen baitu bilera egin zela eta begira zer garrantzi izan zuten, salaketa jarri zuen pertsona bera ere ez zela bilera horretara azaldu». Alkatearen ustez, ebazpenak estatutuen bi artikuluren interpretazio okerra egiten du TANek eta «iritzi dio ez dela zuzena edo ez duela konpartitzen, baina hori epaitegiaren kompetentziaren gainetik dago, ez baitagokio estatutu batzuk zuzenak diren edo ez erabakitzea, horiek beteaztea edo berehala aldatzea agintzea baizik». Etxegarai dio berak zehatz-mehatz bete zituela bi artikuluko horiek eta «epaitegiak partzialki arrazoia ematen dio Bilduri, berari ez dagokion interpretazio okerra egi-

nez». EHBilduren oharak dioenez, «auzitegiak arrazoia eman digu tamalez, horrek erran nahi duelako Geroa Baik alkatetza lesakarren interes publikoaren kontra aritu dela, eta legeak ezartzen zionari bizkar emanda. Politika egiteko eredu zaharra ordezkatzeko du Geroa Baik udal taldeak: herritarren kontrolpetik kanpo eta arbitrarietatean oinarrituta». Alkateak, bere aldetik dio EHBildu gezurretan ari dela «estatutuen kontra jo dudala segurtatzen duenean, edozein gizarte eragile edo epaitegiaren aurrean erakutsiko baitut estatutuetan idatzia dagoena bete bertzerik ez zuela egin presidenteak. Bertzeak dira bere momentuko interesen arabera interpretazioak egiten dituztenak».

FLASH

Iruñeko ahots baxuetako abesbatza elizan

Iruñeko Santa Maria la Real ahots baxuetako abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan apirilaren 24an. Igande goizeko 11:30eko mezan abestuko dute lehenik eta, ondotik, 12:00etan izanen da Lesakako Abesbatzak udalaren laguntzaz antolatutako kontzertua.

4nek taldearen kontzertua Harriandoan

4nek taldeak kontzertua eskainiko du apirilaren 22an, ortziralean 22:30ean Harriandoan Kultur Etxeko Txokobiko aretoan. Joseba San Sebastian herritarrak baxua jotzen du talde honetan.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrutana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

BRANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

KULTURA → APIRILAREN 29AN KULTUR ETXEAN

Gema Arrugaetak bere azken argazki liburua aurkeztuko du

Herriko artzainak ere ageri dira 'Artzantza' liburuan



UTZITAKO ARGAZKIA
Liburu interesgarria osatu du Gema Arrugaetak.

kezpenera, herriko artzainak ere agertzen baitira liburuan.



Ba al zenekien

Beheko Landa auzoan bizi den Nuria Canok *Luchando con Simone* liburua argitaratu du. Liburua bere alabak duen gaixotasunari buruz idatzia dago eta inguruko liburutendetan egonen da salgai.



ARGAZKIA: JABIER IRIARTE

Haurrentzako zinea kultur etxean

Apirilaren 8an *Mulan* filma izan zen ikusgai kultur etxean. Baina ez da hilabetezko zinema emanaldi bakarra izanen, apirilaren 22an arratsaldeko 5etan haurrentzako *Gahoole zaintzailearen kondaira* filma emanen dute.

Altxatako urteko batzar orokorra eta junta berritzea

Apirilaren 2an egin zen Altxata kultur elkartearen urteko batzar orokorra. Batzarrean kontuak berrikusi eta aurreikusitako ekintzak aurkezteaz gain, elkarreko junta berritu zen. Lorea Arangoa izanen da lehendakaria, Edurne Elizagoien lehendakari orde, Iruñe Elizagoien idazkaria eta Maitte Goienetxe diruzaina. Elkartetik deialdia luzatzen da herritar guzietan juntakide bezala sar-

tzeko, urtean zehar antolatzen diren ekitaldi guziaz aitzinera eramateko laguntza beharrezkoa baita.

Udaberriko banakako pilota txapelketa

Apirilaren 6an hasi zen Altxata elkarteak antolatzen duen udaberriko banakako pilota txapelketa. Herriko 22 pilotari ari dira txapelketa honetan. Ekainaren erdi aldean jokatuko dira finalak eta ondorengo berendua izanen dute Altxataren eskutik.

FLASH

Larraburua Baigorri

Larraburua elkarteak mendi ateraldia egingen du apirilaren 24an Baigorriko Nafarroaren Eguna. Herriko plazaatik abiatuko dira 08:00etan.

Haurrentzako zinea

Apirilaren 22an, ortziraletan 17:00etan *Gahoole zaintzailearen kondaira* filma eskainiko dute Kultur Etxean.

XAGU
LIBURUDENDA
Tel./ Fax: 948 638 232

Aprilak 23
liburuaren egunean
10% eko DESKONTUA
liburuetan

“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

ARANTZA

KIROLA → MENDIAREN INGURUKO ASTEBURUA

Mendi lasterketa eta itzulian lanean aritzeko boluntarioak behar dira

Ekaitza Elkarteak bilera deitu du larunbat honetarako

Nerea ALTZURI

Pixkanaka datak hurbiltzen ari dira eta mendiaren inguruko asteburua antolatzeko lanak aitzinera doaz. Halako ekitaldiek lan handia dute aitzinetik, baina egunean berean ere bai, eta hortaz, bai mendi lasterketan eta bai mendi itzulian ere lanean aritzeko boluntarioak behar dira.

• **Mendi lasterketa** maiatzaren 14an, larunbatarekin, eginen da, eta honetan lagundu nahi duenak izena Herriko Etxean eman dezake edota Igor Ugalde zinegotziari deituz (600 670495) ere egin dezake, maiatzaren 2a baino lehen.

• **Mendi itzulia**, berriz, maiatzaren 15ean, igandearekin, eginen da, eta honetan lagundu nahi duenak Ekaitza Elkartearen lehendakaria den Julen Oskozi deitu behar dio: 647 840557.

Denen artean guztia antolatzeko errazagoa izanen da. Animatze!

LARUNBATEAN BILERA

Lagundu nahi dutenentzat bilera ere deitu du Ekaitza Elkarteak Zuzendaritza Batzordeak. Larunbat honetan, apirilak 23, izanen da, 19:00etan Erreuntan, Ekaitza Elkartearen egoitzan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bertso Truk ekimeneko egun borobila apirilaren 9an

Joan den apirilaren 9an, Bertso Truk ekimenaren baitan, egun-pasa ederra eskaini zuten Bortzirietako eta Algortako bertso eskoletako lagunek. Guztira, 14 bertsolari bildu ziren desafioan parte hartzeko. Bortzirietako bertsolarien ordezkari Aitor Elexpuru, Iban Garro, Eneko Fernandez eta Julen Zelaieta aritu ziren. Algortatik ere kuadrilla etorri zen, bertsolariak eta bertso eskolako zaleak ere bai. Tartean, Bizkaiko bertsolari txapeladuna den Fredi Paia. Bertsolariak herritarren eta bertsozaleen goxotasuna ere jaso zuten. Eguerdian elkartu eta herriko lau ostatueta barna poteoa egin zuten. Algortarrek alboka, trikitixa eta panderoa ekarri zituzten eta poteoa musikaren laguntzaz egin zuten 16:00 arte. Ondotik, Ekaitza Elkartearen bazkaldu zuten 20 bat lagunek. Mahai inguruan bertsoan aritu ziren eta 20:00 arte luzatu zen saioa. Herritar mordoxka hurbildu ziren aditzera. Ondotik, berriz ibili ziren poteoan herrian barna eta bertso-besta ordu tikiak arte luzatu zen. Bortzirietako bertso eskolaren partetik esker mila egun hau antolatzen laguntzen aritu diren herritarrei eta egunean zehar modu batean edo bertzean parte hartu zutenei.

FLASH

Txorien kantak

laz bezala, txorien kantak aditzeko hitzordua antolatu du Bidazik. Larunbatean, apirilak 23, izanen da. 10:00etatik 12:30era bilduko dira eta oinez ibili bidenabar txoriak identifikatuko dituzte. Prismatikoak eta kuaderno eramateko gomendatu dute.

Mus tximista

Burlada jatetxeak mus tximista txapelketa antolatu du apirilaren 30-erako, 17.00etan hasita. Apirilaren 29ra bitarte izena eman daiteke Burladan (948 634027) edo egunean bertan ordu erdi lehenagotik. Partaide bakoitzak 10 euro ordaindu behar ditu izena ematerakoan. Sari ederak daude: lehenbiziko saria zapela eta 200 euro; bigarrena 100 euro eta afaria; hirugarrena 50 euro eta ardoa eta laugarrena 30 euro eta ardoa. Bortz hurrengok botil ardoa ere eskuratuko dute.

Bertso musikatuak

Larunbat honetan, apirilak 23, 22:00etan *Bat-batean* emanaldi berezia izanen Aterpen Iruñeko Hizkuntza Eskolak antolatuta. Oskar Estanga eta Aimar Karrikaren eskutik, bertso musikatuak izanen dira.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

BERA
KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak ...
Kanttonberri 1, BERA
kateabera@telefonica.net
948 631 218
MASERATI ORBEA MERIDA SCOTT BH



Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

www.bortziriazabor.com
bulegoa@bortziriazabor.com
Tel. 948 63 52 54

Jakinarazten da: 2016ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinatzen den bezalaxe:

2016ko TASAK

ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	77,50 €	46,32 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	66,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	54,30 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak.	78,70 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	154,60 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	235,70 €	
1. Ostataua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	157,10 €	
2. Ostataua. 30m ² baino azalera handiagoko ostatauak eta janari denda daukaten ostatauak	314,50 €	
3. Ostataua. Pub eta diskotekak	392,80 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	392,80 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	707,40 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	78,70 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	67,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	55,10 €	
2. Landetxea: 6 toki edo gehiagokoa	157,60 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	134,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	110,30 €	
1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoak	549,80 €	
2. Hostala. 10 logela baino gehiagoak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	392,30 €	
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.178,50 €	
Lantegiak, 4 langile bitarte. Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	78,70 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	157,10 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	392,80 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	785,60 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.178,50 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.233,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.291,50 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	763,50 €	

Ordaintzeko era

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2016ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2016ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarquarekin kobratuko da.

Bortziriak, 2016ko apirilaren 1a
Presidentea,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 20TIK 22RA

Udaberriko bestetan merkatua eginen da aurten ere



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Merkatua antolatzeko bilera deitu du Euskara Batzordeak heldu den asteazkenean.

Azoka antolatzeko bilera apirilaren 27an, 19:30ean eginen da Elizatean

TTIPI-TTAPA

Herriko Euskara Batzordea Udaberriko Bestak prestatzen ari da, maiatzaren 20, 21 eta 22rako. Hurrengo aleetan egitarau xehea emanen dugu, baina bitartean herritarrek merkatuaren berri izatea komeni da. Aurten merkatua maiatzaren 22an, igandearekin, izanen da. Frontoian izanen da, eta egun osoan egonen da idekia, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 6:00ak arte.

Aurten, merkatuan bilduko den dirua banatu eginen da. Erdia auzoen errotulazioa akautzeko izanen da, herriko eta Berrizaungo panelak egitea falta baita. Bertze erdia eskolarentzat izanen da, emozio hezkuntzako programa diruz laguntzeko.

Aitzineko aldietan bezala, oraingoan ere merkatuan salduko diren puskak herritarrek beren borondatez em-

nak izanen dira. Gisa honetako gauzak eskatzen ditu batzordeak:

- Etxeko produktak: baratzeko puskak, plantak, eskejeak, arraultzeak, mermeladak, eztiak, dultzea, kontserbak, ilarra, gaztak, likoreak, erreposteria, postreak, kroketak...
- Senda-belarrak, ukenduak, xaboiak...
- Esku-lanak: zareak, bitxiak, pinturak, laboreak...
- Jostailuak, ipuinak, DVD-CDak, bideoak...

• Etxeko tresnak, ontziak, erramintak, apaingarriak...

• Bertzerik gogoratuz gero, antolatzailerekin bati komentatzen ahal diozue.

Herritarrek bueltan hartzen ahalko dituzte egun horretan saltzen diren beren puskak. Bertzela, Paris 365 proiekturajoiaren dira, edota zabor biltzaileari ematen zaizkio.

Maiatzeko lehen egunetan merkatua antolatzen ari den taldeetako kideak etxez etxe ibiliko dira, informazioa emanez. Merkatua behar bezala prestatzeko, antolatzailerekin maiatzaren 15erako jakin behar harko lukete etxe bakoitzetik zertsu emanen duten. Halere, puskak azken egunera arte eramatean ahal dira merkatura.

MERKATUA ANTOLATZEKO BILERA

Hau guztia antolatzeko eta gauzak lotzen joateko bilera ere deitu du herriko Euskara Batzordeak. Interesa eta gogoia duen edozein joaten ahal da laguntzera eta parte hartzera. Bilera apirilaren 27an izanen da, heldu den asteazkenean 19:30ean, Elizatean (lehenagoko udal bulegoetan).

ALBERTO RETEGI
abokatuak
abokatuak
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatu
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAI AIREKIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTZOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANIAK

Erakusketa: Bureau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

Gure konpromisoarekin, pieza guztiak bere tokian

2015eko Errentaren eta Ondarearen Aitorpena. 2016ko apirilaren 20tik ekainaren 24ra
(eta internet bidez apirilaren 7tik aitzina)



Edificio B eraikina (Virgen del Camino / Bideko Ama Birjina). Complejo Hospitalario de Navarra / Nafarroako Ospitalegunea (Pamplona-Iruña)

Aitorpen proposamenen kontsulta: apirilaren 7tik (osteguna)
aitzina navarra.es atarian eta **948 50 51 52** telefonoan

Ogasuneko bulegoetan aldez aurretiko hitzordua eskatzea: apirilaren 18tik
aitzina navarra.es atarian nahiz **948 50 55 05** eta **948 50 55 06** telefonoetan

Erakunde laguntzaileetan aitorpenak aurkeztea: apirilaren 20tik (asteazkena) aitzina

GIZARTEA

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 24AN

Nafarroaren Eguna ekitaldiz betea dator igandean Baigorrrin

Separatistomarik ez! Nafarroa bat eta bakarra! lelopean eginen da

TTIPI-TTAPA

Hutsik egin gabe, apirilko azken igandean Nafarroaren Eguna ospatuko dute Baigorrrin. Eta horretarako egun osoko egitarau zabal prestatu du Basaizea Kultur Batasunak. *Separatistomarik ez! Nafarroa bat eta bakarra!* leloa aukeratu dute aldi honetan: «Izpegiren bi magaletan dantzatzen eta kantatzen duen herria garela aldarrikatzeko. Euskarak bazten gaituela erakusteko. Sustraiak sakon lurrean, eta ametsak hegan haizean, etorkizuna elgarrekin eraiki nahi dugula erraiteko».

Bortz xokotan banatuta antolatuta dute egitaraua:

ELIZAKO PLAZA

- **Goizean:** txalapartariak, bertsolariak, artisauen azoka
- **12:00-13:30:** Zigantekak, dantzariak (Arrola, Bera, Baztan, Duguna), Txaranga eta musikariak (Kuxkuxtu, Elutxa txaranga, Ezpela txaranga, Uztaritze-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baigorriko plazan hainbat ikusgarri izanen dira igande arratsaldean.

ko txaranga, trikitilariak, txistulariak...), basaldunak, Basaizearen hitza, Karmeleren irrintzia eta Larrain dantza.

PENTZEA

- **14:30:** bazkari nagusia.

PLAZA NAGUSIA

- **14:00:** Beira taldea.
- **15:00:** Bertso saioa Eneko Lazkoz eta Sats Karasatorrerekin.
- **16:00:** Tio Teronen semeak (karrikako dantza ikusgarria).
- **17:00:** dantza ikusgarria (Berako dantzariak, Baztango dantzariak, Duguna).
- **18:00:** dantza jauziak.

HERRIKO ETXEA

- **19:00:** Kiki Borda-txoren kontzertua.
- **21:30:** Xiberoots. Xokoa
- **19:00:** Lauroba.
- **21:00:** Emon.
- **23:00:** Trikidantz.
- **01:00:** Tiri & Terry.

Horrez gain, Irrien Lagunen eskutik haurrek euren xokoa izanen dute egun osoan. Kale animazioa ere izanen da egun osoan Klik-k, Polekeleke, Ttek elektrotxarangarekin.

Basaizeatik azaldu dutenez, «gure herrian separatista deitu gaituzte. Baina gu ez gira separatistak! Alderantziz.

UNIONISTAK

«Gu ez gira separatistak! Alderantziz. Unionistak gara gu! Gure herria batua nahi dugu! Nafarroa bi zatitan bereixtearen kontra gira.

Unionistak gara gu! Gure herria batua nahi dugu! Nafarroa bi zatitan bereixtearen kontra gira. Euskaldunak bi estatutan separatzea ez dugu onartzen. Hemen norbait separatista izateko, hori nahi dutenak dira». Hala, apirilaren 24an Baigorri joateko deia luzatu dute, «muga guzien gainetik bizirik den herria girelako».

UEMAREKIN BATERA

Abian da Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina

TTIPI-TTAPA

UEMAK, bertako kide diren udalekin elkarlanean, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina paratu du abian aurten ere. UEMAtik harago doa elkarlana, mankomunitateko kide ez diren zenbait udalek ere parte hartuko baitute.

Kanpaina berri honenkin, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezzen bultzatu nahi da. Bide horretan, errenta aitorpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da. Hizkuntzaren normalizazioa lortzeko euskararen eremu guztiara hedatu behar da, eta horretarako, garrantzitsua da herritarrek euskaraz osotasunean bizitzeko hautua egitea.

Ohi bezala, aurten ere, errentaren gaineko aitorpena egitekoan, zergadunek hainbat bide dituzte euskaraz egiteko, eta aise gainera: lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukeratzeko ahal dute, hau da, euskaraz egiteko ez dago inolako zailtasunik.

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 · BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

BORDALARRIA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

GIZARTEA → APirilAREN 12AN AHOBATEZ ONARTUTAKO EBAZPEN BATEN BIDEZ

Eskola berria egitea eskatu dio Nafarroako Parlamentuak Gobernuari

Behin betiko erantzun duin eta osoa emateko modu bakarra dela uste du

Maider PETRIRENA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak apirilaren 12an ahobatez onartu zuen ebazpenaren bidez Sunbillan eskola berria egiten hasteko tramiteak hastea eskatu dio Nafarroako Gobernuari. Parlamentariak martxoaren 11n bisitatu zuten eskola eta dituen gabezi estrukturalak bertatik bertara ezagutu zituzten, «segurtasunari, osasunari eta espazioari dagokionez». Onartutako ebaz-

penaren arabera, «eskola berria egitea da behin betiko erantzun duinta eta osoa emateko modu bakarra».

Unai Bertiz da Ulibeltzak elkarteko presidentea berria

Martxoaren 19an Ulibeltzak elkarteko bilera orokorra egin zen. Junta aldaketa izan zen landutako gaietarako bat eta ondorengoak dira hurrengo bi urteetan elkarteko juntan egon direnak: Lehendakaria: Unai Bertiz, Lehendakariordea: Xabier Espelosin, Idazkaria: Daniel Bertiz, Diruzaina: Irune Agirre eta bokalak: Amaia Apezetxea, Gariokoitz Aiesa, Josetxo Apeztegia eta Jose Vicente Alzuri.



UTZITAKO ARGAZKIA
Lizun gaztandegiko Arkaitz Vicente kontent sariarekin.

Lizun gazta saritua

Martxoaren 30ean Ordizian Artzain Eguna ospatu zen eta horren barrenean Erregularatzen Kalitate sariak eman ziren. Aipatu beharra dago hamaikagarren aldiz Epetxenekobordako Lizun gaztandegiak saria lortu zuela.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Musikari gaztetxoak han eta hemen

Martxoaren 20an Mendaur trikitixa pandero eskolak Berriozarren haur kantu jaialdian parte hartu zuten. Oholtza gainean izan ziren Ekiñe eta Aroa Bertiz, Ibai Petrirena, Eneritz Iturralde, Maialen Aiesa, Iraide eta Garaine Iriarte. Apirilaren 30ean Tafallan, Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdian ere ariko dira Mendaur trikitixa pandero eskolako zerbait ikasle: Eneritz Iturralde, Maialen Aiesa, Lorea Arruabarrena, Ibai Petrirena eta Iraide-Garaine Iriarte. LH.4, 5 eta 6. mailako taldea ere ariko da kantuan: Xuban Zelaieta, Oihan Lujanbio, Enaitz Portu, Iradi eta Maialen Arretxea, Egoi Irigoien, Helene Rekarte, Iraitz Iparragirre, Markel Agesta, Eneitz Bertiz eta Ane Etxalar dira parte hartzaileak.

MAIATZAREN 12RA ARTE PROPOSAMENAK

Igerilekua hartzeko deialdia

M. PETRIRENA

Igerilekua udan hartzeko (kontrola, zainketa, sokorrista...) lehiaketa deialdia egin du Udalak. Hasierako prezioa 7.438,01 eurokoa da eta proposamenak maiatzaren 12ra aurkez daitezke Herriko Etxeko bulegoetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sunbildarrak Nafarroako duatloi txapelketan...

Apirilaren 9an Sarrigurenen, Nafarroako Duatloi txapelketan Erreka Triatloi taldeko 15 kirolarik parte hartu zuten. Aipatzekoa da talde honetan bi sunbildar ditugula, Eneko Herrera eta Jon Maritxalar. Eneko Herrera agertzen da argazkian, sufritzen baina aldi berean gozatzten.



UTZITAKO ARGAZKIAK

...eta baita Nafarroako mendi lasterketa kopan ere

Kirolarekin segituz aipatzekoa da martxoaren 20an Nafarroako kopako mendi lasterketa Aiegin izan zela eta bertan Iñigo Arrieta eta Eneko Herrera sunbildarrek parte hartu zutela.

DONEZTEBE

GIZARTEA → TXAKURTXILLOTIK APARANERA

Herri baratzeen proiektua martxan jarri du Udalak

Apirilaren 26ra arte aukera izanen dute herritarrek eskaerak aurkezteko

Marga ERDOZAIN

EH Bilduko udal taldeak bultzatutako Herri baratzeen ekimena apirilaren 8an herritarrei aurkeztu zitzaizen. Aurkezpen bilera horretara 25 lagun bertaratu ziren. Interesatuak udal bulegoetatik pasa behar dute izena emateko. Udalak lur eremu bat erabili nahi du zenbait udal partzela herritarren eskura paratzeko baritze modura erabil ditzaten. Kokapenari dagokionez aipatu behar da Mourges etorbidean eginen direla (Txakurtxillotik Aparan industrialdera zabaltzen den lur eremuan).

Herri baritze hauen kudeaketa eta antolakuntza bideratzeko kontzesioa eta erabilera arautzeko ordenantza prestatzen ari dira. Udal ordenantza hila-bete honetako udal bilkuran onartuko da. Ordenantzan honako puntu hauek ezarriko dira: eskumenak eta zaintza, funtzionamendu arauak, erabilera, mugak eta sarbideak, aprobetxamendu-epiak, kanonak, fidantzak,

kalte eta galeren ordainketa, arau-hausteak, kontzesioa bukatzeko arrazoiak...

Behin eskaerak bilduta, udalak eskatzailak deituko ditu baratzeen zozketa eta txukunketa auzolanaren bidez antolatzeko. Proiektu honi hasiera eman eta poliki poliki horren inguruko ikastaroak, hobekuntzak... egiten joanen dira.

IX. Pintxo lehiaketa

IX. Pintxo Lehiaketa, aurreko urteetan bezala, maiatzaren langilearen eguneko asteburua aprobetxatuz antolatuta da. Pepa's kafetegiak eta Ameztia, Ekaitza, El Café, Irrintzi, Titi, Santi eta Mikelo ostatuek sukaldeak astinduko dituzte hiru egun horietan bertaraten diren bezeroei mokadutxo goxoak eskaintzeko. Doneztebarrak Merkatarik elkarrekin hainbat dendek ere pintxo lehiaketarekin bat egiten dute, dendak karriketara ateraz.

Zinemaren denboraldiaren amaiera maiatzaren 1ean

Sei hilabeteko zinema emanaldiaren bukaera langilearen egunean izanen da. *El viaje de Arlo* filmaren itxiko du denboraldia. Erreka guraso elkarteak eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Kirol Jokoetan dominak

Udaberriko loreak bezala Errekak bere sariak ere ederki loratu ditu. Gure judoek domina sorta ederra ekarri zuten Mendillorritik. Apirilaren 10ean ospatutako Nafarroako Kirol Jokuetan Aritz Zulaikak eta Joseba Bengoetxeak (argazkian, eskuinean) eta Narbarteko Maialen Oteizak brontzeko domina baina jantzi zuten infantil mailan. Apirilaren 17an alebin mailako finaletan aritzekoak ziren eta 23an benjaminak ariko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erreka hirugarren Nafarroako taldekako duatloi txapelketan

Errekako 15 kirolarik parte hartu dute Sarrigurenen jokatutako taldekako duatloi txapelketan, hiru taldetan banatuta. Txapelketa taldeko erloju-contrako proba Iñigo Arregi, Javier Magaña, Alberto Barberena eta Santi San Miguelek osatutako A taldeak hirugarren postua lortu zuen, baina bertzeak ere ederki ibili ziren.

DBHko 4. mailako ikasleek elkarlanean aurtengo kultur ekimen hau era arrakastatsuan gauzatu dute. Proiektu honetan Doneztebarrak Merkatarik elkarrekin eta Udalaren laguntza ere izan dute. Ia 30 film ikusteko aukera izan da.

Aurtengo toloia jaitziko da, heldu den ikasturtekoa ilusioz prestatzeko asmotan.

Ba al zenekien

Sanba San Miguel eta Ixabel Kala Pattar mendiko kaxkora (5.663 metro) igo direla, Everest inguruan egin duten trekking-ean.

FLASH

Langileen egunerako mobilizazioak

Langileen eguna ospatzeko apirilaren 28an N121-A errepidea era legal batean eta baimenarekin moztuko da, *Gure osasun eta segurtasunarengatik 121-A konponbidea orain* lelopean. Mozketan Zalainen, Irunerako bideko bigarren gasolindegien parean, eginen da. Maiatzaren lehenerako eguerdiko 12etan manifestazioa eginen da Donezteben Avia gasolindegitik abiatuta.

Malerreka Egunerako mus txapelketa abian

2016ko Malerreka Egunaren antolakuntzaren ardurak lurenen badu ere, gainerako herriak ere egun horretarako ekarpenak prestatzen ari dira. Aurtengo hitzordua maiatzaren 28an izanen da, hau da, hilabeteko azkeneko larunbatean. Ekitaldi zabalaren baitan mus txapelketa martxan jarri da. Helburua da tokian tokiko mus txapelketa egitea eta finala Malerreka egunean lehiatzea.

Udaberriko Feria maiatzaren 6an

Aurtengo udaberriko feria maiatzaren 6an burutuko da. Aurreko urtetan bezala esku-langileen erakusketa eta ahari lehiaketa antolatuko dira. Hurrengo alean xehetasun gehiago ematen ditugu.



GIZARTEA → APirilAREN 30EAN

Leurtzako urtegiara ateraldia prestatu dute Solaslagunek

Mendilagunak egitasmoaz gain, Parkelaguna ere antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Solaslagunak programaren baitan, Leurtzako urtegiara ateraldia antolatu dute Mendilagunak apirilaren 30ean. Larunbat goizeko 10etan Doneztebeko Titi ostatuan kafetxoa hartu eta autoak antolatu dituzte Leurtzara joa-

teko. Urtegien inguruan bizpahiru orduko ibilbidea osatuko dute, Itziar Irastorza Doneztebeko solaslaguna gidari dutela. Nahi izatekotan hamaiketako ttipia ere eraman daiteke. 14:00etan bazkaria izanen dute Beintza-Labaiengo Orbela aterpetxean. Bazkarian izen emateko epea apirilaren 25ean akituko da, Solaslagunaren txokoan, 610 920673 telefonoan edo solaslaguna@topagunea.org helbide elektronikoan. 15 euroko menua izanen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskaraz Blai udalekuak Arantzan eta Beintza-Labaienen

Euskaraz Blai Udalekuen zazpigarren edizioa aurkeztu zuten Bertzen apirilaren 1ean. Bertan, Mikel Albisu, Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoko lehendakaria, Xabier Zugarramurdi, Arantzako Aterpekoa, eta Julen Egaña, udalekuen zuzendaria, izan ziren. Ekainaren 26an hasi eta irailaren 3ra bitarte astebeteko hamar txanda antolatu dira, igandetik larunbatera, guztira 800 plaza.

PARKELAGUNAK

Honetaz gain, Parkelagunak egitasmoa ere aurkeztu dute, gurasoak haurrak zaintzen ari direlarik, haien artean euskara praktikatzeko elkartuko dira astean zehar. Seme-alaba tikiak dituzten gurasoei zuzendutako aldaera da eta haurren ordutegi edo zaintza beharretara egokitua dago.

Taldeak osatuko dituzte, euskaraz dakitenak, ikasten ari direnak edota praktikatu nahi dutenak, aukeratutako ordutegi eta egunetan euskaraz solasteko. Parkelagunak umeen zaintzaz arduratuko dira Mintza-taldean dauden bitartean. Bi baldintza baino ez dira behar: batetik, euskaraz komunikatzeko

gutxieneko maila edukitzea eta bertzetik, gutxienez astean behin ordubete inguruz taldearekin biltzeko konpromisoa hartzea.

Izen ematea apirilaren 25era arte egin daiteke, fitxa bete eta Solaslagunaren Txokoan, Baztan, Bortziriki eta Malerrekako Euskara Zerbitzuetan edo norbere ikastetxean utziz.

2016 udaberriko kolekzio berria



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea



edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toaillak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ITUREN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 8AN

Sorpresarekin etorriko da hileko bigarren igandeko azoka

Egun berean ospatuko den Herri Urratsen izanen dira joaldunak

Arkaitz MINDEGIA

Maiatzaren 8an, hila-beteko bigarren aste-burua izanik, artisau eta lanbide azoka izanen dugu herrian. Azokako postuez gain labe mugikorra ere jarriko dute eta alaitasunez beteriko ekitaldi sorpresa bat ere izanen dugu! Ez da ahaztu behar, egun berean, Senpereko lakua- ren bueltan Iparraldeko ikastolen aldeko besta

izanen dugula, Herri Urrats!

Ziur herritar aunitz joanen direla bertara. Ohiturari eutsiz, Iturengo joaldunak behintzat bertan izanen dira, beraien joare soinuak ibilbidean zehar zabalduz.

Mendaur trikitixa eskolakoak Tafallan

Apirilaren 30ean Mendaur trikitixa eskolako ikasleek Tafallan ospatzekoa den haur kantari jaialdian parte hartuko dute. Aurrez ere aritu dira bertze saioetan kantuan eta esperientzia polita izaten ari da. Oraingoan ere, se-



UTZITAKO ARGAZKIA

Hilabeteotan pizza eta bertze jateko ugari egina dute Malerreka Trukerrekak egindako labe mugikorrean. Maiatzeko bigarren igandean bertze sorpresa izanen da.

guru egun ederra pasatzeko aukera izango dutela.

Ibai Berregi

Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketarekin eman zion hasiera Ibai Berregi aurtengo denboraldiari eta hemendik aurrera geldialdirik gabe, batean eta bertzean ibiliko da: apirilaren 17an Berako maratoi erdia egitekoa zuen, apirilaren 30ean Monrealen taldeko txapelketan parte hartuko du eta ekainaren 4an Leitzan

eginen den Euskal Herria Mendi erronkan ere izanen da.

Mallerrekako eguna maiatzaren 28an

Maiatzaren 28an Malerreka eguna ospatuko da Iturenen. Ekitaldi betetako egitaraua izaten da halakoe-tan eta horregatik, antolakuntza lanetan buru-belarri dabilta da goeneko. Hurrengo alean xehetasun gehiago emanen ditugu, baina data ongi apuntatu eza-zue!

MALERREKA

Solasaldia eta frontenis txapelketako finalak Gazte Asanbladaren eskutik

TTIPI-TTAPA

Ta Malerrekan ze? izenburuean hainbat ekitaldi antolatu ditu Malerreka Gazte Asanbladak hilabete honetan. Apirilaren 10ean Jakoba Errekondorekin Zubietan egindako baratze tailer praktikoaren ondortik, apirilaren 22an 19:30 aldera Erlantz Urtasun historialarekin Nafarroari buruzko historiaren kontakizuna, "Nafarron liburu galduak" ekimena (aurkezpen, solasaldia eta liburu erakusketa).

Apirilaren 30ean frontenis txapelketako finalak eta bertso afaria Ander Fuentes *Iturri* eta Ane Labakarekin Donamarian.

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

erran
Mendialdeko Albistek
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK

Download on the App Store

Unai ETCHART

«Egun guztietan aritzen gara lanean, gauzak prestatzen, biltzen... eta baita bestan ere»

27 urte ditu Unai Etchartek eta duela zazpi urtez geroztik laborantza munduan ari da lanean «gaizki dagoen sektore bat da, beste toki aunitzetan bezala, esnea, haragia... baina gustuko dudan lana da». Gaztea izanik, besta egitea ere maite du, ordea, eta gero izaten dira komeriak, besta ordu tikiak arte egin eta segidan lanera joan beharra ere tokatu izan zaiola aitortu baitigu irriz, «ez da errexia baina lo gutixeago eginda ere moldatzen gara, bestak urtean behin dira eta».

Urdazubiko bestek ez dute data zehatza egutegian eta aurtengoan goiz xamar suertatu izana Unaien mesedetan izan da «nik behintzat nahiago goiz samar izatea beranduago baino, gero bertzenaz kanpoko lanak etortzen dira egiteko; bazkak, artoak...». Zonaldeko lehenbiziko bestak izanik, jendea gogotsu egoten dela ere aipatu digu «herritarrek eta baita inguruko herrietatik etortzen direnek ere, ilusio haundiarekin hartzen ditugu».

BESTARIK EZ DA, ANTOLAKUNTZARIK GABE

Besta egin ahal izateko, aitzinetik prestaketa lanetan aritu behar izaten dute eta horretarako bestetako komite bat sortua dute «txandakako sistema moduko bat da, sartzan diren kide berriek aitzineko urtetik komitean daudenetatik ikasten dute, dakitenek ez dakitenei erakusten diete». Komitea bortz laguneko taldeak osatzen du, baina azpimarratu nahi izan du denen laguntza beharrezkoa izaten dela «herriko bertze gazte eta heldu aunitzek ere hartzen dute parte bestak aitzinera ateratzeko».

«Lo gutixeago eginda ere moldatzen gara, bestak urtean behin dira eta».

Bestarako ordua iristen denean «umorez eta gogoz» hartzen ditu. «Egun bakoitza diferentea da baina gutti gora behera egun guztietan aritzen gara lanean, gauzak prestatzen, biltzen... eta baita bestan ere».

Gehien maite duen eguna Salbatore eguna da «goizetik meza, ezkil jotzea, dantzariak, aperitifia eta nola ez arratsan paella jatea izaten baita». Eguneko eta gaueko bestaren artean berriz, «lehenago gaueko besta nahiago nuen, baina orai eguneko nahiago dut» dio. Herrian «giro ederra» sortzen da, «herritar aunitzek hartzen dute parte eta jende aunitzekin egoteko aukera duzu».

Bistakoa da maite dituela Urdazubiko bestak eta arrazoia simplea da, «nire herriko bestak direlako» dio. Denek gozatu ahal izateko herritar guztien parte hartzea beharrezkoa dela ere azpimarratu nahi izan du besta borobilagoak izanen baitira, denek euren apurra ematen badute.



BAZKARIAK
AFARIAK
BOKATAK...
948 599 021
URDAZUBI

Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

BESTA ON BATZUK PASA !!

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

ARMUA JATETXEA



URDAZUBI • Alkerdi auzoa, Km. 3
Teléfono: 948599131 • Fax: 948599131

ONGI PASA
BESTAK!!

ARDI LATXAREN GASNA
7. AK MUNDUAN
SALMENTA ZUZENA EGUNERO
Zugarramurdiako karretera
948 599 169 - Urdazubi
www.etxelekua.com

IRIARTEA BENTA
Autozerbitzua • Ostalua • Larrua...
DANTXARINEA • Urdazubi • T. 948 599 049 • ventairarte@hotmial.es



CONSTRUCCIONES A. BENGOTXEA



- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

ONGI PASA BESTAK!

URDAZUBI

Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com

JATETXEA - ERRETEGIÀ



OSTATUA • TABAKO-DENDA

ANZAN BORDA
URDAZUBI NAFARROA
(Dantxarineatik 2km.tara)T. 948 599 039
montxoblanco@gmail.com
**MAIATZAK 4, ASTEAZKENA,
BESTA BEZPERAKO MENU BEREZIA**

Baratxuri zopa

Xuri ta beltz

Idi-txuletoia

Postrea: euskal pastela izozkiarekin

Ardoa, sagardoa, cava, kafea eta kopa.

Prezioa: **35 euro**Txartelak jabetxean bertan eros daitezke
maiatzaren 1a baino lehen.

TALOAK eta TXOTX EGUNERO

**ASTEAZKENETIK IGANDERA
GAUEZ BESTA GIROA**

ONGI PASA BESTAK!

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK • PINTXOAK
MENUAK ENKARGUZ • ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN


Zure erosketa gunerik hoberenak
Euskal Herriko bihotzean

Ongi Pasa Bestak!



KUPELA SAGARDOTEGIA

MIKALA OSTATUA & PINTXOAK

LUGARANA JATETXEA

NUBA DANTZALEKUA


► LANDIBAR CENTER:

Barrio Dantxarinea s/n, 31711 URDAX Ext: 662 | ☎ 34 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)

 WWW.VENTA-PEIO.COM | ☎ 34 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)
 Arnegi | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin

David BIDAURRE

«Zer hobeki besta giroan otordu on baten bueltan elkartzea baino?»

Mantala jantzita, zartagin eta kaxola artean aritzen da lanean 43 urteko urdazubiarra. Sukaldaritza ikasketak egin zituen eta 22 urte daramatza Paco Bentako sukaldean lanean eta lanorduetatik kanpo ere ez ditu albo batera uzten sukaldeko kontuak.



Urdazubiko bestetako sukaldari ofiziale-tako bat da «ez dut gogoan noiz hasi ginen pintxoak egiten. Paella egiten orain dela 20 urte inguru hasi ginen». Salvatore eguneko aperitiboko pintxoak egiten dituzte, azaldu digunez «800 eta 1.500 pintxo artean eta igandekoak ere bai, bertze hainbertze». Asko dira prestatzen dituzten gutxiak eta «bakoi-tzak bere gustukoa duen arren, berezianak odolki krujientea sagar karamelizatuarekin, txistor hojaldrea eta izokinarena dira» bere ustez.

Paella berriz, herriko gazteentzat egiten hasi ziren hasieran eta nabarmen egin du gora kopuruak orain, «300 pertsonendako prestatzen dugu, azkeneko urteetan 4-5 pertsonen artean, bartz paellera haundi egiten ditugu eta 30 kilo arroz inguru behar izaten dira». Paellaren sekretua «egiteko momentuan erne erne ibiltzea da, salda on bat prestatu eta sofrito mimatzea. Piper gorria ere ematea gustatzen zait».

«ORDUKO 1.000 KILOMETROKO ABIADURAN»

Lana eta bestak uztartu nahian, egun horiek «orduko 1.000 kilometroko abiaduran» bizi dituela aitortu digu «estres haundiko egunak izaten dira lanean, urteko egunik fuerteenak dira eta ho-

rregatik ezinezkoa zait bestak nahi nituzkeen adina aprobetxatzea». Hala ere, baditu huts egin ezinezko zenbait ekitaldi «asteazkeneko txupinazo eta ezkil jotzera joatea gustatzen zait, magikoa da kanpandorreko eskailera arrikutsu horiek igotzea. Ostegunean paella prestatu eta jatera joaten naiz eta larunbateko zikiroa galduezina da, ikaragarri gustatzen zait ondotik egiten den kalejira».

LAGUNEKIN ELKARTZEKO

40 urte bete ondotik, «dudarik gabe eguneko besta egitea nahiago dut, horrela ondoko egunean forman egoteko. Adinean goiti gaki naizela kontuan izanik, batek ezin ditu lehenagoko bestak bota». Horregatik agian, geroz eta gehiago estimatzen ditu mahai inguruan ematen dituzten orduak «niretzat bestak otordu onik gabe ez lirateke berdinak izaneren. Adin batean gaude, ia gehienak ezkondu eta umeak ditugu. Zer hobeki besta giroan otordu on baten bueltan elkartzea baino?». Lagunarteko bilkura horiei esker «berdin du eguna edo momentuak, egun guziak politak dira».

«Asteazkeneko txupinazo eta ezkil jotzera joatea gustatzen zait, magikoa da kanpandorreko eskailera arrikutsu horiek igotzea».

Urdazubiko besten bereizgarriak bi dira bere ustez «lehenbiziko bestak direla eta aukera gastronomiko haundia dagoela». Horregatik dagoeneko hasi da gorputza prestatzen David «hilabete batez gibela eta dieta zainduz, gero egun horietan behar bezala disfrutatzen». Eguraldiak sortzen dio kezka punttua, aurtengo bestak «ia ohartu gabe ailegatuko zaizkigu, niretzat goizegi» dio «nahiz eta udaberrian egon segur naiz jertse lodia eta txubaskeroa soinean eramane beharko ditugula».

LA KOSKA
JATETXEA

ongi pasa bestak!!

948 599 042 · URDAX

IRIGOIENEA

ongi pasa bestak!!

948 599 267 · URDAZUBI

www.irigoiena.com · reservas@irigoiena.com

Pinturas
Iñaki Alzuyet margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

ONGI PASA BESTAK!

FATXADAK, BARNEALDEAK eta PLADURRA

pinturasalzuyet@yahoo.es

URDAZUBIKO UDALAK

Urdazubiko Udalak besta zoriontsuak opa dizkizue urdazubiar eta bisitari guztiei!



ZUBIENDO
 OSTATUA
 AUTOZERBITZUA
 OROIGARRIAK
Ongi pasa bestak!
 (0034) 948 599 041
DANTXARINEA

ongi pasa bestak!



JOXEMI BENGOTXEA S.L.
 TEILATUAK | FATXADAK | ESKAILERAK
 EGURREZKO ESTRUKTURAK
 LEIHOAK | ATEAK | ALTZARIAK | ZOLAK



ESKABAZIOAK | ESKOILERAK
 LUR MUGIMENDUAK | HONDAKINAK

T. 660 501 584 | F. 948 599 169
 Etxelekuak | URDAZUBI (Na)
 joxemibengotxea@yahoo.es



MAIATZAK 1, igandea

10:00 Kontrabandisten lasterketa. Plazatik abiatuta 15,83 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute parte-hartzaileek. 656 metroko desnibela gainditu eta tartean Azkar eta Elorga lepoak igoz. **Eguerdian** sari-banaketa eginen da. Hel-mugara iristen diren lehen hiru sailkatuek saria izanen dute, gizonezko nahiz emakumeek: 250, 150 eta 50 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren.



EDUNE
 ileapaindegia.coiffure

ongi pasa bestak!

Juan Aguirre 5 1.B
 31711 URDAZUBI
 T. 0034 948599224

ongi pasa bestak!

Patxi Jaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
 MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI(Na)
 ursunea@gmail.com



Kulturkari
 diseinu grafikoa publikitatea

- Logotipoen diseinua
- Tarjeten diseinua
- Triptikoak, karpetak, gutunazalak, fakturak...
- Kartelak, egutegiak
- Irudi korporatiboa

eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!

Tel. 948 635 458
 kulturkari@ttipi.eus



ZIGARRO PURUEN CAVA
ongi pasa bestak!



ARRETXEA ESTANKOA



DANTXARINEA (Urdazubi)
 T. 948 599 018
 F. 948 599 015
 estancoarrechea@yahoo.es



MAIATZAK 4, asteazkena

20:00 Txupinazoa eta ezkil jotzea herriko trikitilariekin beste hasiera emateko. Aperitif tiki bat ere emana izanen da. **21:30** Herri afaria plazan Hauspolariek alaiturik.

MAIATZAK 5, ortzeguna

11:00 Meza nagusia. **12:00** Aperitifa txistulari eta dantzariekin. **16:30** Haurrendako jokuak. **21:30** Paella jatea eta ondotik, Trikidantz taldearekin dantzaldia.

MAIATZAK 6, ortzirale

12:00 Gorriti bere animaliekin. **14:00** Ugarana emakume elkarteko kideen bazkaria. **16:00** Haurrendako jokuak. **19:00** Txokolatada plazan. **19:30** Asier Kidan magoaren ikuskizuna **23:30** Kontzertuak: Zernai, Tumatxak eta talde sorpresa.



MAIATZAK 7, larunbata

14:30 Zikiro jatea Irungo Atxegifia txarangak alaiturik eta gero kalejira herriko karriketan barna. **16:30** Haurrendako jokuak. **21:00** Indar berri-zeko zingar jatea eta giro onari eusteko Los excelentes mariatxiek dantzaldia. **00:00** Gabezin taldearekin dantzaldia.

MAIATZAK 8, igandea


16:30-17:30 Nesken frontenis finala eta mutikoen pala finala. **18:30** Anaxta-xiren agurra: Pintxoak eta musika denentzat eta boletoen zozketa.

Josenea Gasolindegia Urdax - Urdazubi Dantzarinea
www.urdax-dantzarinea.com
www.josenea.es

www.mikelenborda.com
Mikelen-Borda
Benta - Jatetxea
Dantzarinea 39112 (Nafarroa) - Tel 00 34 948 599045
ongi pasa bestak!

SANTIAGO VILLARES S.L.
ongi pasa bestak!

LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA
Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56
info@santiagovillares.com
www.santiagovillares.com



Jatetxe-erretegia terrazarekin.
(Herriko plazan, errota-kanalaren ondoan)

Karta berezia bazkari eta afarietarako,
aste hondarreko eta eguneko menuak.

Berezitasuna: Urdazubiko amurraina ondo beltzekin.
(etxeanekoitziak). Gazta eta postrea; gozogintza landua.

Sukaldaritza berria, etengabe berritzen.

Ardo karta zabala.

Bertako produktuak: amurrainak, ondoak, haragikiak, ehizakiak,
arrainkiak, gaztak, intxaurrak, eztiak, sagardoa, esnekiak...



URDAZUBI-URDAX
Urdazubiko Plaza
www.nikolaurenea.com
T. +34 948 599 477
M. +34 620 021 967

IREKIA
Astelehenetik Igandera
Asteazkena itxita
(Besta egun eta haien
bezperak izan ezik)

MENUA eta KARTA
Haragi eta arrainki erreak

NIKOLAURENEA ERRETEGIA
URDAX-URDAZUBIKO PLAZAN

DANTXARINEA
**MERKARITZA-PARKE
 BERRIA**

Axular



BIOK
 SUPERMERKATUA

OIHANA
 RESTAURANT



MADE FOR YOU

Half
 Street Style Store

MODA & OSAGARRIAK

AGATA

BITXIAK

Sweet Home

ETXERAKO ARTIKILUAK

KATIUSKA

ZAPATAK

ZELAI

ALBAITARITZA ETA ANIMALIAK

Sustrai
 Belardanda Herboristeria

JUNGLE PARC

PARTY FIESTA

LDOLA
 LURRINDEGIA
 EDERTASUN INSTITUTUA



BEZEROENTZAT APARKALEKUA DOAN

EGUNERO IREKIA

Dantxarinea, 5 - 31712 Dantxarinea (Nafarroa)

T 0034 848 478 881 - F 0034 848 478 883

Ana ALMANDOZ

«Jatekorik eskaintzen ez denean ere, plaza jendez betea ikusi nahi nuke»

Urte aunitzetan besten antolakuntzan aritua, garai bateko kontuak gogora ekarri ditu, «lan aunitz egiten genuen, gogotsu eta gustura».



Denboran gibelera egin eta gazte garaiko kontuak astindu ditu Anak besten inguruan solasean hasitakoan «hutsetik, guk geronek egiten genuen guztia» aipatu du. Lan egiteko eta gauzak antolatzekeo «borondate pixka bat» zutenak elkartzen omen ziren «lan aunitz egiten genuen, gogotsu eta gustura». Egun «jende gehiagok parte hartzen duela iduritzen zait» dio eta gauzak antolatzekeo moduan nabari du alde handiena, «dena kanpotik sobera prest datorrela iduritzen zait. Haurrendako jokuak adibidez. Gure garaian, arratsalde batean elkartu eta guk montatzen genituen: irin artean txanponak sartuta, globoak haizatu.... ez zuten oraingoan antzarik, xarma gehiago zuten eta gainera, haurrek ere prestatzekeo prozesuan parte hartzen zuten.

DIRU-ITURRIEN BILA

Bestak antolatzekeo herriko etxeak diru-laguntzaren bat ematen zuen baina «beti oso gutti zen gure iduriko» horregatik, bertze diru-iturri batzuk bilatu behar izaten zituzten «gazteok urtean kuota bat ordaintzen genuen eta gogoan dut zozketa bat ere antolatzen genuela. Bestetako ortziral goizetan Dantxarinear ere ibiltzen ginen eskean musikarekin. Garai hartan montatu genuen ostatu tiki bat eta bertatik ateratzen genuen dirua. Pilotari partidak antolatu eta sarreretatik zerbait lortzen genuen, baina pilotariak ere asko kostatzen ziren. Bateko eta

bertzeakoarekin, moldatzen ginen». Herrian aterpe handirik ez izatea ere ez zen traba «dantzarat parasolekin, katiuskekin ateratzen ginen... plazan biltzen zen jende guztia».

MUSIKA TALDE BAT ETA BAKARRA

Musika talde bakarra etortzen zela ere azaldu digu «20 urtez ekarri genuen Naigi musika taldea. Besta guztiak pasatzen zituzten hemen, Karreteron lo egiten zuten, eta azkenean lotura berezia sortu zen beraiekin, lagunak ziren». Orain berriz, musika ostatueta ere bada eta horrek «besta partitza dakar» bere ustez, «gu ostatuan kantuz aritzen ginen, musikarik ez zelako izaten».

«20 urtez ekarri genuen Naigi musika taldea. Besta guztiak pasatzen zituzten hemen, Karreteron lo egiten zuten, eta azkenean lotura berezia sortu zen beraiekin, lagunak ziren».

PARTE-HARTZEA BULTZATZEKO BEHARRA

Bestak «aunitzez lasaiago» bizi dituela dio, «noizbait juerga bakarren bat egiten dut baina, sakonak egin nituen gaztean eta uste dut kupoa betea dudala» gaineratu du irriz. Hala ere, larunbatean ez du sekula hutsik egiten zikirora. Duela urte batzuk, ortziralear bertsolariak ekarri zituztenekoa ere ongi gogoan du «polita izan zen, bertsoak aditu eta sagardotegi bat ere muntatu zuten».


Bestek soberan zer duten galdetuta, «gonbidatu batzuk» erantzun digu eta faltan berriz, «gure adineko jendearen parte hartzea. Animatu nahi nituzke plazarat ateratzera, dantzan aritzera, alaitasuna erakustera herrian eta besta giroan sartzea». Kezka sortzen dion kontua da «badirudi, jendea plazarat etortzea nahi baduzu, jatekoa eman behar dela derrigor».

Ea bada, jendea animatu eta garai batean bezala plaza dantzarako betetzen den.

ttipi-ttapa ko
BERRIAK TWITTERREN
@ttipi_ttapa/@erran_eus
EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

Bazteretxea
JANARIDENDA **benta**
Tel.: 948 599048
URDAZUBI
Ongi pasa bestak!!

IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN
HORMIGOI ESTANPATUA
ZOLADURAK
KURRINKA
CONSTRUCCIONES, S.L.
Barrio Leorlas. s/n - 31711 URDAX (Navarra)
Tel. (0034)609 878 162 (Antonio) - e mail: antonio@kurrinka.com
Tel. (0034)600 438 438 (Angel) - e mail: kurrinka@kurrinka.com
www.kurrinka.com



LANDA
HAURTZAINDEGIA
GARDERIE • GUARDERIA
irekiera irailean
Urdazubi - Urdax
ongi pasa bestak!
info.landa03@gmail.com

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.eus

OLARI
jatetxeajatetxea aire
egokituarekin hornitua
ongi pasa bestak!Tel. 948 452 254 · IRURITA
rteolari@hotmail.es
www.restauranteolari.es

Arotxa

ONGI
PASA
BESTAK!

Aroztegia 1890az geroztik

M 650 53 20 73 T. 948 58 14 18 · IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK

TOLDOAK - ESTOREAK
MOSKITERAKMOSKITERA BATEKIN EULI ETA
MOSKITOETAZ BABESTU

EGUZKIAZ BABESTU TOLDO BATEKIN

IRURITAKO BESTAK

Egoitz PRIM

«Gazteak gara bestak antolatzekeo garaian kate guztia lotzen dugunak»

Bestetako egitaraua prest, azken ukituekin burubelarri dabilta dagoeneko. Aurtengoan ere, 10-15 gaztek hartu dute euren gain bestak antolatzeak dakarren ardura «bilera irekiak dira, mundu guztiari egiten zaio bertaratzeko deia, baina, gehienetan gazteak elkartzen gara». Beraiekin batera, egiteko zehatz batzuk dituzten pertsonen parte hartzea ere beharrezkoa dela azpimarratu du Egoitzek «guraso elkartekoek, helduek, adinekoek... lan zehatz batzuk hartuak dituzte eta gero, gazteak gara bestak antolatzekeo garaian kate guztia lotzen dugunak».

UDAKO BESTEN LEHEN
TXINPARTA

Eskualdeko lehendabiziko bestak izanik, «jendeak gogoz» hartzen dituela dio «inguruko herrietatik jendea ere animatzen da eta giro oso ona sortzen da». Zenbat eta lehenago izan «hobe» dela gaineratu du «udako besten hasiera da, plazako giroaren itzulera. Negukoei bukaera eman eta luzaroan iraungo duen besta giro horren hasiera».

«Besta egin ahal izateko aitzinetik lana egin behar da, bertzenaz ez zen bestarik izanen».

Herriko bestak iristen direnean «denetarik pixka bat» egin behar dela dio «gauzak prestatzen lagundu, batekoa eta bertzekoa montatu... eta ongi pasa eta disfrutatu ere bai». Kirolaria ere bada, baina hori ez da parrandarako traba «gogoia izanez gero biak ongi egiten ahal dira, uztartzen ahal dira».

EGUN GUZTIAK DIRA
BEREZIAK

Bortz eguneko egitaraua eskuan hartuta, egun bakoitzak bere berezitasuna duela dio «asteazkena lehenbiziko

eguna denez, jendea indarrarekin dator, besta handia izaten da. Ortzegunean herriko jendea bakarrik gaude, eta horrek ere badu bere xarma. Ortziralean gazteen eguna denez, bazkaria egiten dugu eta giro polita sortzen da. Larunbatean zikiroarekin bertze bazkari on bat izaten da, egun potentea da hau ere, herriko adin guztietako jendea elkartu eta giro polita sortzen delako».

«EGUN BETEKO BESTA»

Iruritan ere bazkari eta afariak ez dira falta «Euskal Herrian badirudi ez dakigula besta egiten mahai baten bueltan bildu gabe». Eguneko giroa eta gauekoa, biak ere beharrezkoak direla dio «egunez besta egiten hasi eta gauez bukatzen den besta» du gustuko, berak deitu dion bezala «egun beteko besta». Iruritan, «plazako giroari eusten» zaio- la ere aipatu digu «lehendabizikoak direlako akaso, baina jendea ateratzen da dantzara». Erromeria «gogoz» hartzen da «jendea plazan egoten da, eta ez beti ostatuko giroan». Bera barra ondoan tokia gordetzen edo dantzan arituko ote den galdegin eta «bietatik» eginen duela erantzun digu irriz «dantzan ere pixka bat eginen dugu, ez sobera baina».





MAIATZAK 4, asteazkena

12:00 Txupinazoa. Herriari buelta emango zaio Baztango Gaiteroekin. **16:00** Haurrendako Herri Kirolak eta ondoren Haurren trinkete pilota txapelketako finalurreko partidak. **18:00** Merendua eta bonba japoniarak. **18:30-20:30** Dantzaldia plazan Beñat akordeolariarekin. **20:00** Ezkil-jotzea. **21:00** Baztan zopak. **01:00-04:00** Dantzaldia karpan Beñat akordeolariarekin

MAIATZAK 5, ortzeguna

10:00 Dianak. **11:00** Meza nagusia. **12:00** Herriko dantzarien erakustaldia. **13:00** Luntx Herrikoa. **17:30** Trinketeko III. Haurren esku pilota txapelketako finalak. **18:15** Trinketeko IX. Esku pilota txapelketako finalak. **19:30** Bertso poteoa. **20:00-21:30** Dantzaldia Gabenara taldearekin. **21:30** Mutildantzak. **00:30-04:00** Dantzaldia Gabenara taldearekin.



MAIATZAK 6, ortzirale

10:00 Dianak baserrietan. **10:00** Haurrendako jokuak erreboteko plazan. **13:30** Haurrendako bazkaria karpan. **14:00** Jubilatuen bazkaria Olari jate-txean. Gazte bazkaria Baigorriko merenderoetan. **15:00** Haurrendako jokuak. **18:00** Txokoladeta **20:30** Dantzaldia Gabezin taldearekin. **21:30** Mutildantzak. **23:00** Sakatu elektrotzaranga eta ondoren Tirri&Terry Djak karpan. **01:00-04:30** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

MAIATZAK 7, larunbata

10:00 Dianak Txarangarekin. **11:00** Hour animazioa gizarte bilgunean. **12:00** Herri kirol desafioa. **14:00** Zikiro jatea txarangarekin. **18:00** Herriari buelta emanen zaio txarangaren laguntzarekin. **20:00** Dantzaldia Laiotz taldearekin. **21:30** Mutildatzak **01:00-05:00** Gaupasa Laiotz Taldearekin.

MAIATZAK 8, igandea

10:30 IX. Hour- krosa. **11:30** VIII. Herri lasterketa. **12:30** Sari banaketa eta luntxa parte hartzaileendako. **18:00** Herriko dantzarien erakustaldia. **20:00-21:30** Hauspolariek taldearekin dantzaldia. **20:00** Patata tortilla lehiaketa **22:00** Afari herrikoa **Ondoren** Besten akabaila.

J.P AGERREBERE

Karrozeria • Aroztegi Metalikoa



Zaldubi ind. IRURITA • Tel.: 948 580 538 | 630 184 847

ongi pasa bestak!

Carpintería

Lizasoain, S.L.

Erreformak orokorrean • Leihok • Ateak • Eskailerak • Armairuak
948452077 • Zaldubia ind. • 31730 IRURITA

sukalDeco

estudio cocina y baño



www.sukaldeco.com
IRURITA 948 580 666



ARKUPE

Gozotegia • Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa, beltza eta xuria.
Tabletak, bonboiak, trufak,
Txokolate konfitatua.
Tartak, etxeko izozkiak, pastelak
pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Iruita - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

CONSTRUCCIONES

MIGUELENE

ERAIKUNTZAK

ONGI PASA BESTAK!

677 225 112 | IRURITA

GIZARTEA

ARKUPEAK → URTEKO KONTUAK

Superabitarekin itxi du 2015a Arkupeak Elkarteak

Urritik aitzinera ikastaro batzuk dohainik eskainiko dira

Fernando ETXEBERRIA

2015eko kontuak jakinarazi ditu Arkupeak Elkarteak: 570.398,46 euroko sarrerak izan zituen eta 570.035,94 euroko gastuak. Beraz, superabita 362,52 eurokoa izan zen. Halaxe jakinarazi zuen Jose Luis Legarra lehendakariak apirilaren 12an Zuzendaritza Batzordeak egindako bileran. Ezzen bilerako gai baka-

rra izan. Izan ere, entitate pribatu batek Baztanen jubiloteka sortzeko proiektua aurkeztu du. Zerbitzua hainbat motatako arazoak dituzten adinekoendako izanen litzateke eta Arkupeak-i diru-laguntza eskatu dio. Zuzendaritzak, ordea, proiektua aurkeztu dutenekin bilera egin arte itxarotea erabaki du.

ATERALDIAK

Egun bateko irteera hauek egingen dira bigarren seihilekoan: Aralarra, Arantzazura, Lezora, Nafarroako Pirinioetara, Gorraizera (Bazkidearen Eguna), Lodosara eta Zu-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

46 bazkide bildu dira gimnasia erakustaldian

Ohiturari eutsiz, apirilaren 7an Arkupeak elkarteko bazkideek gimnasia erakustaldia egin zuten Doneztebeko kiroldegian. Urte osoan Urdazubi, Elizondo, Doneztebe eta Leitzaan Patxi Txokarro irakaslearekin ikasitakoak jendaurrean erakutsi zuten 46 bazkidek. Ondotik ehun bat lagun bildu ziren bazkaltzeko.

marragako feriara. Bidaia luzei dagokienean, Herrialde Baltikoak, Benidorm eta Kanariar Uhar-teak bisitatuko dituzte.

IKASTAROAK

Urritik aitzinera ikastaro ugari eskainiko dira: dantza, luzaketak, Diana Iniestarekin margo tailerra, Carlos Pikabearekin margo tailer laburra, zizelkatze eta pirograbatuen hastapena, igeriketeta eta *aquagym*-a.

Ba al zenekien

Apirilaren 21ean Dantxarinean egingen den Kantuen Egunean 375 lagun biltzekoak direla eta agian Xaloa Telebista eta ETB han egonen direla?

Bertzalde, Nafarroako Gobernuaren eta Caixarekin elkarlanean, ikastaro batzuk dohainik izanen dira: informatikaren hastapena, dokumentuak sortu eta diseinatzea, argazkilaritzako ukituak eta aurkezpen digitalak, sarera konekta zaitez,

irriz ernatzea, aktiba zaitez, min guttiago bizitza gehiago, entrenatu, adineko irakurleak...

Segurtasunaz eta elikaduraz hitzaldiak ere emanen dira eta bazkideek egindako lanekin erakusketak Elizondo, Doneztebe eta Leitzaan.

SAHARAZTAN → 'BAKELEKU NAFARROA' EGITASMOA

Lehenbiziko aldiz udalekuak izanen dituzte saharar haurrek Elizondon

Udal, gizarte eragile eta herritarren laguntza eskatu dute

TTIPI-TTAPA

Saharaztan elkarteak urteak daramazki saharar herriari bere elkartasuna eta laguntza eskaintzen, eta Oporrak Bakean proiektua izaten da bere egitasmo

nagusia. Honi esker, urtero saharar haurrak Baztan-Bidasoko familietara ekartzen dituzte udako bi hilabeteak pasatzera. Bi helburu nagusi ditu Oporrak Bakean egitasmoak: batetik, basamortuko udako egoera latzetik umeak atera eta oporrez gozatzeko aukera eskaintzea eta bertzetik, elikadura osasungarria eta mediku arreta ematea.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Saharaztan elkarteari esker urtero Saharako haur talde batek udako bi hilabeteak Baztan-Bidasoko familiekin pasatzen ditu.

Aurten, ordea, proiektua sendotu nahi izan dute eta Bakeleku Nafarroa aurkeztu dute.

Saharaztan eta EAEko Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe elkarteak, ANAS-en (Saharako Lagunen Nafarroako Elkarteak) laguntzarekin, gure esku-aldean abian paratu nahi duten egitasmoa da Bakeleku Nafarroa. Hala, Oporrak Bakean pro-

gramako 20 haur saharar Elizondon izanen dira udaleku batean. Elizondoko Lanbide Eskolaren egoitzan izanen dira udaleku horiek.

Baina horretarako Saharaztanetik laguntza eskatu diete Baztan-Bidasoko udal, gizarte eragile eta herritarrei: «laguntza beharko du-gu guztion artean egitasmo hau aitzinera eramanez ahal izateko: jana-

riak, arropak eta begirale moduan boluntarioki lan egin nahi duten gazte edo helduak, eta 20 ume hauen etorrerak dakarren gastuei aitzin egiteko diru-laguntzak beharko ditugu».

Bide batez, eskerrak ere eman dizkiete Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendaritzari, Baztango Udalarari eta Baztan-Bidasoko biztanleria, eragile eta udalei.

GIZARTEA → MAIATZAREN 7AN HERRIKO OSTATUAN

Hiruak Bat elkartasun bazkaria antolatu dute

Aurtitz, Ituren eta Zubietako gazteek segida eman nahi diote urtero

Fermin ETXEKOLONEA

Aurtitz, Ituren eta Zubietako gazteek antolatu dute lehen aldiz Hiruak Bat elkartasun bazkaria. Lehen edizio hau Zubietako Herriko Ostatuan egingen dute maiatzaren 7an, baina urtero lekuz aldatzeko asmoa dute eta beste herrietan ere ospatu.

Larunbat eguerdik 12:00etan Iturendik trikopeteoan abiatu eta

Aurtiztik pasatu ondotik Zubietan bukatuko dute. 14:30ean bazkaria izanen dute Herriko Ostatuan. Guttienez hama mabi haur apuntatzen badira, haurren menua 12 eurotan izanen da (makarroiak, oilaskoa patatekin eta izozkia) eta helduena 22 eurotan (magra, pateia, marisiko paella, entrekota piperrekin, postrea, kafea, kopa eta edaria. Maiatzaren 1ean akitu-ko da izen emateko epea Zubietako Herriko Ostatuan eta okindegian, Aurtizko Herriko Ostatuan eta Iturengo Herriko Ostatuan. Egunean zehar



ARGAZKIA: EDORTA A. MURUA

Jakoba Errekondorekin baratzetan

Malerrekako Gazte Asanbladak *Ta Malerrekan ze?* jardunaldiak antolatu ditu martxotik ekainera bitarte. Horren barrerean, apirilaren 10ean, igande goizean Zubietako plazan gelditu eta Jakoba Errekondo adituarekin baratzte tailer praktikoa egin zuten, herriko baratzetan. Hainbat lagun bildu ziren, 20-22 inguru, Errekondoren aholkuak aditu eta baratzetan nola gauzatzen ahal diren ikasiz. Kontent gelditu ziren ikasitakoarekin. Horretaz aparte, frontenis txapelketa mistoan ere hasiak dira gazteak.

Azpeitiko trikitilariak jarriko dute animazioa.

Lehen jaunartzeak eta Maiatzeko loreak

Lehen jaunartzea maiatzean egingen dute Zubietan hiru neskek: Zaira Bendoiro, Maialen Mendiburu eta Uxue

Santestebanek. Maiatzeko igandetan ainguruak ere aterako dira loreekin, Amabirjinaren adorazio modura. Lehen jaunartzea egingen dutenez gain, Enara Santesteban, Ainara Arregi, Mirari Iribarren eta Sara Santesteban izanen dira laguntzaile, meza denboran.

Zubietarrak TVEn

Aquí la tierra, Televisión espagnolako telebista saiorako grabaketa egin zuten apirilaren 8an errotan Mari Jexux Petrikorenarekin, Xanti Hualde kaikugilearekin, Borralda baserriko Patrixi Telletxearen taloak... Apirilaren 13an eman zuten zati bat.

TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!
Baztan - Bidasoako Renault Zerbitzu ofizial
bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen guztirako, etorri gurera.

RENAULT
Passion for life

RENAULT ocasión
alquiler de vehículos comerciales

SERVICIO POSVENTA Renault
Renaultek gomendatzen du **elf**

renault.es/posventa

TALLERES SANTESTEBAN, S.A. Leitzako Errepidea, 80. Tel. 948 450 282. 31740 DONEZTEBE

ARESO

AURKEZPENA → UDALETXEKO ERABILERA ANITZEKO GELAN

'Euskaraz gara' dokumentala aurkeztuko dute apirilaren 29an

Areso, Arano, Goizueta eta Leitzako herritarren gogoetak biltzen ditu

Juana Mari SAIZAR

Eskualdeko euskara zerbitzuak eta Areso, Leitza, Arano eta Goizuetako herritarrek elkarlanean osatu dute *Euskaraz gara* dokumentala. Herri bakoitzean emanaldi bana antolatuko dute datozen hilabeteetan eta estreinaldia Areson izango da udaletxean, apirilaren 29an, 19:00etan.

Euskarari buruzko dokumentala da eta hizkuntzak bizi duen egoerari buruz, norberak izan dituen esperien-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Merkuko parajeen zuhaitzak landatu dituzte elkarlanean

Zuhaitzaren eguna ospatzeko, Merkuko parajeetan zuhaitzak landatu dituzte Guraso Elkarteko kideek eta haurrek. Aurten gainera, Leitzako institutuko gazteek ere parte hartu dute lan honetan. Ikasbidaira joateko diru pixka bat irabaztearen truke herrian lanen bat egiteko prest agertu ziren eta Merkuko parajeen zuloak egin zituzten ondoren bertan zuhaitzak landatzeko.

tziei buruz, etorkizunari buruz... hitz egiten dute elkarriketatutako pertsonak. Aresoko ha-

mar herritarri elkarrizketak egin dizkiete euskara taldekoek eta guztien artean hautaketa egin

da. Dokumentala bukatu ondoren, hausnarke-ta saio labur bat egingo da. Animatu eta azaldu!

Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin du udalak

Juana Mari SAIZAR

Aurten ere, errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbidatu nahi dituzte herritarrek. Udal bando bidez egin dute deia «osotasunean euskaraz bizitzeko, arlo guztietara zabaldu behar dugu gure hizkuntza, administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea eta beharra dugulako, eta errenta euskaraz eginda administrazioaren eskalduntzean eragiten dugulako, besteak beste». Azken urteetan gainera Nafarroako eskualde zabal batean Areso izan da errenta aitortpen gehien euskaraz egin dituen herria, eta hori zoriontzekoa da, ez gara makalak! Ea bada kopuru horrek gora egin eta eredu izaten jarraitzen dugun.

ARANO

INGURUMENA → MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK ETA UDALAK BULTZATUTA

Herriko eta beheko herriko auzo konposta guneak martxan dira

Gune bakoitzean hiru konpostagailu jarri dira

Ainhoa ANSA

Auzo konpostaguneek interesa sortu dute herrian eta elkarteko zuzendaritzako jendea, ta-

bernakoak eta herritar batzuk ere hurbildu dira egin diren informazio saioetara. Azkena, apirilaren 18an, arratsaldean, izan zen. Joseba Santxez Mendialdea Mankomunitateko teknikaria etorri zen konposta nola egin behar den eta gai organiko nola bota gunean bertan erakustera. Gu-

ne bakoitzean dauden hiru konpostagailuak nola kudeatuko diren ere zehaztu zuten. Hala, erabiltzaileek bidea libre izanen dute. Oraingoan, giltza jarriko zaie, eta kontsejukoek bat beraien zat izanen dute. Beste biak, erabiltzen hastean eta nolako martxa darabaten ikustean (zabor



kopurua eta erabilera egokia), orduan zehaztuko dira hoberen. Arano da inguruko herrietan

konposta egiteko animatu diren bizilagun gehien dituen herria, %65 inguruk egiten du.

GIZARTEA → AMAZABAL IKASTETXEAN

Leitzarango ondarea lantzen ari dira DBHko 2. mailako ikasleak

Bailarak dituen baliabide natural, historiko eta industrialei balioa emateko

JM BARRIOLA

Amazabal ikastetxe-ko irakasleek Oinarrizko Gaitasunei buruz egiten zuten ikastaroan jasotako prestakuntza praktikan jartzeko asmotan, Leitzarango bailarak duen ondare natural, historiko eta industrialean oinarritutako Unitate Didaktiko Integratu bat diseinatu dute DBHko 2. mailako ikasleentzat. Lau departamentuk hartu dute parte: Natur zientzietakoek, Gizarte zientzietakoek, Teknologia-koek eta Gorputz Hezkuntzakoek. Hala, bailarako ekosistemak eta energia, burdinolak, mendi-ibilbideak diseinatzea eta zentral hidroelektrikoak lantzen ari dira. Horrela gure ondarea gehiago ezagutu eta baloratzeko helburuarekin.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Aralar musika eskolak ikasle-trukea egin du kataluniarrekin

Apirilaren 8ko asteburuan Vilafranca del Penedésko "Clau de Sons" musika eskolako kideak izan ziren bisitan. Aralar Udal Musika Eskolarekin ikasle-trukea egin dute eta «esperientzi itzela» izan zela diote. 25 ikasle eta 3 irakasle etorri ziren eta asteburuan zehar inguruaz egazguzteko aukera izan zuten, besteak beste Peru Harri bisitatuz. Igandean bi musika eskoletako ikasleek elkarrekin kontzertua eskaini zuten Leitzako zinean, 200 ikusle baino gehiagoren aurrean. Errepertorio klasiko-ko pieza ezagunenak eskaini zituzten Vilafrancako musika eskolakoei zeharkako xirula eta bibolina zein biolontxelo formazioak baliatuz. Bi musika eskolen artean prestatutako bi abestirekin amaitu zen emanaldia eta argazki saioa egin ostean, Aurrera elkartera bazkaltzera joan ziren. Apirilaren 29an gure eskualdeko 35 ikasle joanen dira Kataluniara. Lagun berriekin elkartzeko irrikitan daude jada!

FLASH

38. Herri krosa

Apirilaren 23an izanen da kros herrikoia. Benjaminak 16:30ean abiatuko dira irteeratik, gaztetxoak 17:00etan eta helduak 17:30ean.

Jubilatuaren eguna

Maiatzaren 8an ospatuko dute egun osoko pesta. Bazkarirako txartelak apirilaren 22tik 26ra, 18:00etatik 19:00etara eros litezke jubilatuen bulegoan.

308 kilokoarekin saikera

Inaxio Perurenak apirilaren 23an egingen du 308 kiloko harriarekin marka ahalegina, eguerdiko 12:30ean, Amazabal pilotalekuan. Sarrera: borondatea.

Energiari buruzko jardunaldiak

Leitzako Udalak eta LeitzEko Kontsumo Taldeak, antolatuta bigarren antolatuta bigarren antolatuta dituzte jardunaldiak. Apirilaren 28an, GoiEne-rraren eskutik argindar-aren faktura murriztu eta ulertzeko tailerra antolatuko dute (bertar- ratzen direnek euren faktura ekar dezaketeko). 19:30ean udaletxean.

GIZARTE ZERBITZUEK ETA DBH 3KO IKASLEEK

'Topikoekin jolasean' bideoa egin dute elkarlanean

JM BARRIOLA

Gizarte zerbitzuek DBHko 3. mailako ikasleekin landu duten proiektu baten amaiera da. Hainbat tailerretan bikote harremanetaz, adiskidetasunaz, amodioaz, komunikazioaz... hausnartu zuten eta gero egoera errealekin alderatu. Izan ere, teoria oso ongi ikasita eduki arren, gero, egunerokoan, praktikan kontraesanak sortzen dira. Laster konturatu ziren koxka ez dagoela bakarrik jakitean, baizik eta egiten jakitean. Bideo bat grabatu zuten erreazio desberdinak bilduz eta orain Gozamenaz lehiaketan aurkeztu dute egindakoa. Ea zortea duten!



UTZITAKO ARGAZKIA

LeitzEko Ekonomia Solidarioko sareko azokan parte hartu du

Nafarroako Ekonomia Solidarioari buruzko IV. Azoka ospatu zen apirilaren 8, 9 eta 10ean Iruñeko autobus geltoki zaharrean. 75 erakustokitik gora zeuden ikusgai, produktu eta zerbitzu ugari eskainiz, eta tartean zen LeitzEko kontsumo elkarteak jarritakoa ere. Ekonomia Solidarioa indartu eta ikusaraztea da azoka hauen helburua, hazten ari den errealitate sozioekonomikoa bistaratzeko.

GOIZUETA

GIZARTEA → APirilAREN 9AN EGIN ZUTEN ATERALDIA

Zahagi dantza ezagutzera eman dute Hernanin

Dantzatzeaz gain, dantzaren ixtorioa kontatzen duten eskuorriak banatu zituzten

Goizuetan egin zen hausnarketan, Zahagi dantza indartzeko beharra ikusi zen; horretarako, ideia ona zela Zahagi dantza herritik kanpo ezagutzera ematea. Kontu horren haritik, herriko gazteak, Hernanira joan ziren apirilaren 9an helburu horrekin.

Sagardo garaia apro-

betxatuz, goizean, Hernaniko kaleetan Zahagi dantza dantzatzu ibili ziren (dantzaren ixtorioa kontatzen duten eskuorriak ere banatu zituzten) eta ondoren, sagardotegira joan ziren. Harrera ona izan zuen Zahagi dantzak hernaniarren eta kanpotarren artean, eta giro bikaina jarri zuten kaleetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zahagi dantzaren berri ematen hasiak dira herritik kanpo ere, Hernanin esaterako.

TTIPI-TTAPA

Inauterien inguruan

FLASH

Zarauzko Primo txakolindegira irteera

Zarauzko Primo txakolindegira irteera antolatatu du Umore Ona elkarteak apirilaren 30ean. Apuntatzeko azken eguna hilaren 24a da Amaia kafetegian, 30 euro ordainduz. Autobusa goizeko 10:30ean aterako da plazatik eta txakolindegian bazkalduko dute. Bueltatzeko ordua denen artean erabakiko dute egunean bertan.

Sormenezko sukaldaritza ikastaroa

Fagollagako Mari Angeles Huiciren eskutik sormenezko sukaldaritza ikastaroa antolatatu du Umore Onak. Hiru saio egingen dituzte, maiatzaren 11, 18 eta 25ean, 18:00etatik 20:00etara. Amaia Kafetegian apuntatzeko epea apirilaren 25era arte dago zabalik. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 30 euro.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko txirindulari itzulia herritik pasa zen

Gasteizen hasi eta Lesakan bukatu zen Euskal Herriko txirindulari itzuliaren hirugarren etapa herritik pasatu zen apirilaren 6an. Ez da maiz ikusten horrelako kirol ekitaldirik gurean eta jendea asko bildu zen plazan.

KIROLA

Aralarren jokatu da Europako orientazio txapelketa abuztuaren 27 eta 28an

TTIPI-TTAPA

Europako Orientazio (Rogaine) txapelketaren hamahirugarren edizioa abuztuaren 27 eta 28an jokatu da Aralarren.

Probak entrenamendu saioak izango ditu aurretik (Aralarretik kanpo). Txapelketaren bilgunea Lekunberrin egongo da eta, ostegunean (abuztuaren 25ean) bertan hartuko dira dortsalak eta azalpen teknikoak emango dira. 26an (ostiralean), txapelketaren bilgunea Albiko zelaie-

tan jarriko da eta bertan "jokagunea" aurkeztuko da eta beharrezko oharrak emango dira; eta, larunbatean (27an), 09:30ean, kontrol eta puntuazioekin orientazio mapa banatuko da.

Proba, larunbatean (abuztuaren 27an) hasiko da 12:00etan (10:00etatik 12:00etara estrategia prestatzen da), eta igandean, (abuztuaren 28an) 12:00etan. Ikusleeak, proba zuzenean jarraitzeko aukera izango dute, "live track" segimendua

egingo baita GPSren bidez. Horrela, pantaila batean partehartzaileen kokapena ikusiko da zuzenean.

Izena emateko lehenengo epea bukatuta, 346 inskripzio daude eginak, eta horietatik ia %50a atzerritik dator. Ukrainiarrek, errusiarrek, poliniarrek, daniarrek, alemaniarrek... osatzen dute atzerritarren multzoa. Espainako Estatutik, batez ere, Madril eta Kataluniatik datoz inskripzio gehienak,

GIZARTEA → APirilAREN 23AN MANIFESTAZIOA

EH Bildu eta Geroa Bairen arteko ikamika Aroztegiaren inguruan

Apirilaren 1eko Batzar Nagusian Geroa Bai bakarrik agertu zen herri galdeketaen kontra

TTIPI-TTAPA

Batzar Nagusiak ohiko bilkura egin zuen apirilaren 1ean eta gehien-go zabal batek Kuarteleko batzarkideek aurkeztutako mozioarekin bat egin eta Aroztegiako Udalez gaindiko sektore plana gelditzeko eta afera herri galdeketaen bidez erabakitzearen aldeko proposamena babestu zuten. Proposamen horren alde 21 batzarkidek egin zuten, 6k abstentziorat jo zuten (UPNko 4ak) eta Geroa Bairen ordezkari bakarrik kontra bozkatu zuten.

Bozketarat ailegatu orduko eztabaida luzea eman zen. Joseba Otondo batzarburuak gaia bideratzeko modurik zentzuzkoena, logikoena eta demokratikoena herri galdeketa egitea zela erran zuen. Ruben Ziganda Geroa Baiko ordezkariak galdeketaen aukera ezbaian paratu zuen, nahiz

Geroa Bai galdeketaen alde beti egon dela ere argudiatu. Hain zuzen, Geroa Baik, idatzi bidez aipatu du «EH Bildu eta Baztango Ezkerra izan direla gai honen inguruan herri kontsulta hirutan ukatu dutenak, egiteko aukera juridikoa zegoenean». Baztango Geroa Bairentzat orain «espediente itxita dago bai EH Bildu bai eta Baztango Ezkerrak ere itxi dutelako lau urtetan ezer ez egin ondoren. Praktika demokratikoa batzuei ulertzea kostatzen zaien zerbait dago, segurtasun juridikoa alegia. Espediente administratibo bati hasiera ematen zaionean eta pauso guztiak amaierara arte zehatz-mehatz errespetatzen direnean, hura betetzea baino ez da gelditzen. Arauak ez dira gure barnako interesen arabera dauden zeozer».

Honi erantzunez, eztabaidaren muina erraza dela uste du Baztango EHBilduk: inposizioa edo herriari galdegitea. «Geroa Baik Aroztegiako gaian duen itsukeri eta temazukeria ez da ulertzen ahal. Gaiari zentzuzko konponbidea eman beharrean, demokrazian sakondu beharrean, kaskarturik



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko Itzuliaren Lesakako helmugako podiumera ere ailegatu zen Aroztegiako proiektuaren kontrako protesta. Apirilaren 23an manifestazioa egingen da Elizondoko.

ageri dira, baztandarrei hitza emateko entzungor, Baztanen alferreko tentsioa sortuz» dio EH Bilduk eta koalizioa eta gobernuko arduradunei arduraz jokatzeko deia egin diete.

Bertzalde Miren Meo-kik Lekarozko alkateak bertze idatzi baten bidez, herriak Aroztegiako proiektuari buruz hartu zuen erabakiaren berri eman zuen Batzar Nagusian. Modu horretan, 2009. urtean herriari Aroztegiako birkalifikazioari buruz herri-galdeketa egin zela oroitari zuen eta gehien-go handia kontra agertu zela. Aurtengo otsailaren 19an herriko batzarrak Aroztegiako udalez gaindiko sektore plana gelditzeko eta Baztan mailako herri-galdeketa egiteko erabakia hartu zuela jakinarazi zuen.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak udalez gaindiko sektore plana gelditzeko Batzar Nagusiak egindako eskariari urtezahar egunean ezetz erran ondotik, batzarkideen gehien-goak, Nafarroako Auzitegi Nagusirat jotzea eta udalez gaindiko sektore plana errekurritzea erabaki zuen.

BAZTAN

GIZARTEA → APirilAREN 5EAN ARIZKUNENEAN

Zer jan, halako Baztan ekimena aurkeztu du Udalak



UTZITAKO ARGAZKIA

Albaitaritzako Julen Huarte eta Joseba Otondo alkatea, ekimenaren aurkezpenean.

Bertako jatekoei buruz kontzientzia piztu eta tokiko ekonomia indartzeko egitasmoa da

TTIPI-TTAPA

Zer jan, halako Baztan herritarren artean bere honetako jatekoei buruz kontzientzia piztu eta tokiko ekonomia indartzeko udalaren inizatiba da. Apirilaren 5ean aurkeztu zuten Arizkunenean Joseba Otondo alkateak eta ekimena patrosinatu duen Albaitaritzako enpresako Julen Huarte gerenteak.

Aurkezpenean aipatu zuten, «badira herritarren eskuetatik urrun diren gauzak eta badira herritarren esku-

ra diren gauzak. Gure eguneroko kontsumo ohitura aldatzea norberaren eskuetan dago. Eguneroko erosketetan bere honetako produktuak erostea norberaren eskuetan dago. Tokiko ekonomia konpromiso eta konplizitate aunitzekin egiten da eta, horretan, herritarrok zer egin aunitz dugu».

Bere honetako jatekoak nekazaritza sektoreak ematen dituela ere gogorarazi zuten: «Sektoreak bizi duen krisia ez da oraingoa, aspalditik heldu da. Kontsumitzaileok zerbait egiten ez badugu, nekazaritza Baztanen desagertuko da eta tokiko ekonomia ahulagoa izanen dugu».

Zer jan halako Baztan ibilian ibiliz egiten den proiektua izanen da. Oraingoan etxe guztie-

tarat igorri duten eskuorria da. Eskuorri hauekin Baztango produktuei buruzko interesa piztu eta hauen garrantziaz ohartarazi nahi dute. Bertiko produktuak modu berrian prestatzeko modua erakutsi nahi dute, produktu modernoak eginez, oraingo mundurats egokituak. Halaber, bizia zein agudo mugitzen den jakinik, fite prestatzeko errezetak izanen dira. Oraingoan ardiaren esnearekin baratxuri zopa, zendena opilak eta ardi-esneflanak egiteko errezetak prestatu dituzte.

Eskuorri hauetan bertalalde, produktu hauek nola egiten diren aipatzen dute, ardi-esnearen kasuan artzaintzari buruz aritzu eta ho-

nen balioa aipatuz: elikagai onen ekoizpena, paisaiaren zainketa...

ERREZETAK XALOA TELEBISTAN

Bertalalde, sektoreari buruzko datuak ere ematen dituzte, produktu hauek Baztango ekonomian duten garrantziaz ohartzeko eta produktuen balio nutrizionalari buruzko argibideak izateko. Eskuorriak produktuaren gaineko ikuspegi osoa ematen du: ekonomikoa, kulturala, nutrizionala... Horrela, produktuen garrantziaz osoki ohartu gaitezen. Eskuorri hauetan udalaren webgunean www.baztan.eus webgunean eskura egonena dira eta, hor ere, Zer jan halako Baztanen in-

formazio guztia bilduko da.

Errezetak Belen Urrutia sukaldariak Xaloe Telebistan prestatuko ditu. Eskuorrian errezeten emisio egunaren berri ematen da. Belen Urrutiaren prestutasuna eta borondate ona ere eskertu nahi dute. Errezeta horiek egitera animatuz gero, hemen go produktuak erosi beharko dira eta hemen go produktuak erosiz gero hemen go ekonomia eta nekazaritza indartzen da.

Zer jan halako Baztan laneko ildoak arras inportantea da eta horren inguruan elikadura burujabetza ardatz hartuta esku hartze sendo, egituratu eta estrategikoa egin nahi du udalak.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Mármoles SOULE

HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN



Pierresenea

OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOS - MUGAIRI

GIZARTEA → APIRILAREN 3AN

Oinez Basoa inauguratu du Baztan Ikastolak

Iaz Nafarroa Oinez antolatu zuen ikastolak karpe eta loro espezie babestuekin basoberritu du Gainekola

TTIPI-TTAPA

Otsondoko mendateko atsedean gunetik Gainekolaruntz oinez abiatu ziren euskararen aldeko basoa ezagutzeko Baztan Ikastolako ikasle, guraso, ikasle ohi, irakasle zein Baztan Ikastolako lagunak apirilaren 3an. Behin Gainekolara iritsita, inaugurazio ekitaldixoa ospatu zuten. Lodosa eta Viana ikastoletako ordezkariak ere bertan ziren, Nafarroa Oinez 2016ko antolatzaileak

direnak, NIEko ordezkariak, Baztango alkatea eta Nafarroako Ingurumen kontseilaria izan ziren. Ondoren Baztan ikastolako ikasleek Zuhaitz landaketa egin zuten, eta bertaratutako guztiek hamaiketako goxoa hartu dute baso berrian Otsondora buel-tatu aitzinetik.

BEDERATZI HEKTAREA

Bederatzi hektareako azalera basoberrituko du Baztan Ikastolak Gainekola herri lurlean eta bi landare mota babestuz osatuko du basoa: erramu portugaldarra edo loroa (*crunus lusitanica*) eta karpea edo pago-lizarra (*carpinus betulus*). Loroa Nafarroan harrapatzen ahal den toki bakarra Baztanen dago, Urritzate eskualdean. Eta Iberiar Penintsulan gutxitutako



UTZITAKO ARGAZKIA

Bederatzi hektareako azalera basoberritu du Baztan Ikastolak Gainekola inguruan.

landarea da. Eta pago-lizarra, berriz, Pirinioetatik beheiti Iberiar Penintsula osoan, basa barririk harrapatzen ahal da Bortzirietan, Igantzi eta Arantza artean.

Baztan Ikastolarena Nafarroa Oinezek sortu duen bosgarren basoa da, 2008an Oinez Basoa abian paratu zenetik. Oinez ospakizunak ingurumenean kalte ekologikoak eragiten zi-

tuela ikusita sortu zen egitasmoa abiatzeko ideia. Izan ere, baliabide naturalak kontsumitu, hondakinak sortu eta berotegi-efektuko gasak isurtzen baititu bestak. Kalte ekologikoa orekatzeko asmoz, besta ospatzen zen tokian ingurumenarendako testigantza onuragarri bat uztea erabaki zen: naturgune autoktonoa birsortzea, euskararen

eskutik sortuko zen basoa hain zuzen.

Erabaki hori hartu zenetik gaur egun artio, lau baso ezberdin sortu ditu Oinez Basoak: mendebaldeko baso bat Arbizun, baso mediterranearen bat Tafallan, ibaiertzeko baso bat Tuteran eta baso jangarria, hegazti basoa eta zabortege eremua berreskuratzeko basoa Zangozan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ahari onenak saritu dituzte Udaberriko Ferian

Elizondoko Udaberriko Feria egunean, ahari lehiaketaren hemezortzigarren edizioa burutu zen apirilaren 1ean. Iaz bezala, Arraiozko Xuntenera eta Almandozko Etxotora joan dira aurten ere sari nagusiak. Ahari lehiaketaz gain, urteko gasnari lehen kortea eman zion Ordabideko Peio Pegneguyk. Ahari lehiaketaren hemezortzigarren edizioari dagokionez, denera 27 buru aurkeztu zituzten (13 mutur gorri eta 14 mutur beltz). Burugorrien artean, lehenbiziko saria (75 euroko eta Santiago Oteiza erratzuarrak egindako kaikua) Arraiozko Xuntenera Sagrario Urrozentzat izan zen, bigarrena (50 euro) Arraiozko Indakoako Felisa Ugarterentzat, eta hirugarrena (30 euro) Gartaingo Etxexuriko Feliciano Etxarterentzat. Burubeltzen artean, lehen saria Almandozko Etxotoko Norberto Agerrek eraman zuen, bigarrena Irurritako Gernuxarreko Migel Angel Maritorenak eta hirugarrena Erratzuko Xixperriko Soledad Iturbidek.

MAIATZAREN 4AN ARIZKUNENEAN

Haurren transexualitateari buruz hitzaldia Chrysallis-ekin

TTIPI-TTAPA

Haurren transexualitateari buruzko solasaldia eskainiko du Chrysallis Euskal Herria elkarteak maiatzaren 4an, asteazkenean 18:00etan Elizondoko Arizkunenean. Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatutako solasaldian parte hartzeko izena eman daiteke apirilaren 27ra arte (hau barne) 948 580006 telefonora deituz. Euskal Herriko Haur transexualen familiak elkartzen ditu Chrysallis elkarteak.

ZUGARRAMURDI

KULTURA → APIRILAREN 17AN

Herriko neskatoen kontakizuna ikusteko aukera izan da herrian

Karmen Indaburu, Kruzis Apeztegia eta Inma Uranga ageri dira Jon Abrilen dokumentalean

Margari eta Koro

Hilabete hauetan herriz-herri ikusgai ibilki den *Neskatoak* dokumentala herrian ere ikusteko aukera izan ginuen apirilaren 17an.

Dokumental horretan beren esperientzia kontatzen, hiru herritarrek parte hartu zuten: Karmen Indaburuk, Kruzis Apeztegiak eta Inma Urangak.

Garai batean kontrabandoan aritu zirenak familietako ekonomian lagungarri izan ziren gisan, neskato gan ziren gazte haiek ere meritu ederra izan zuten.

Pala txapelketa

2016ko Pala txapelketa abian da. Apirilaren 16an finitu zen ize-na emateko epea, eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pala txapelketako finalak, 2013an.

hemezortzi lagun dau-de apuntatuak.

Berez, txapelketa mixtoa da, baina neska gutti animatu dira parte hartzera: batto barrik, Argitxu Agerre.

Bikoteak zozketaz egin ziren, eta denak aipatzea gehiegixko da, baina mixtoa nola gelditu den aipatuko dugu: Argitxu eta Alfredo.

Partidak larunbat arratsaldezkotako di-

ra, eta finala Andre Mari egunean izanen da.

Zaindari ikustezina

Zaindari ikustezina (El guardian invisible) pelikulako grabaketa gure huntara ere hurbildu da. Apirilaren 8an, egunez, Urdazubiko lezeetan aritu ziren grabatzen, eta gaez, berriaz Zugarramurdin, Bizkarrondoko-bordako inguruetan.

Eskertza

Titiriteroen topaketako antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eskeini duten guztiei: Urdazubiko Gaiñara eta Zugarramurdiko Arleun eta Akelarre elkarteei, Montxo, Marixan eta Ansalas ostatuei, Gaineiko Bentari, Museoa eta Udarlari, eta hemen aipatu gabe gelditzen diren bertze aunitzeri.

Udaberria da!

Prestatu udaberria, zatozte gure ikusterat!
Mintegia, landareak, maskotak, egongelak, ongailuak...
eta aunitz gehiago!



84, 1945 maiatzaren 8ko etorbidea
64100 Baiona
tel: 00 33 5 59 42 24 42



Ikusi gure
web orriak euskaraz
ere!

www.lafitte.net

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 2AN INHARREAN

Arrakasta haundia erdietsi du kantuaren egun berriak

Tarapata elkarteak lekukoa hartu die Oxtikenekoak elkarteko kideei

Franck DOLOSOR

Eskiula, Zalgize, Ar-mendaritze, Banka, Aldude edo Senpereko inguruetako ahots ederrak entzuteko parada paregabea izan zen Inharrean joan den apirilaren 2an Tarapata el-

karteari esker ospatu zen "Hiruka'ntuz" euskal kantuaren egun berri eta jendetsuaren kariatarat. Herriko zombait gaztek muntatu zuten bestak gaitzeko giroa piztu zuen eta lekukoa ederki hartu zieten duela hogoi bat urte Senperen kantu xaharren bazkariak apailatzen hasi zirenei, Mixel Mendiburu, Auxtin Zamora eta Peio Chipy Oxtikenekoak elkarteko kideei. Azken urteetan kantuzale frango zendu denez, lpar Euskal Herriko gazteak gomita-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Giro ederrean ibili ziren Inharreko Senpereko kantu egunean.

